

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN PLEGUA, GORLIZ UDALERRIKO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA BERRISKUSTEKO IDAZKETA- ETA AHOLKULARITZALANEN KONTRATUA, IRIZPIDE UGARIREKIN PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESLEITU BEHARREKOA, ZUZENDU BEHAR DUTENAK.

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

1. klausula. Araubide juridikoa.....	5
2. klausula. Kontratuaren xedea.....	5
3. klausula. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren prezioa.....	5
4. klausula. Kontratistaren profila.....	6

II. KAPITULUA - LIZITAZIOA

5. klausula. Kontratatzeko gaitasuna eta enpresak hautatzeko irizpideak.....	7
6. klausula. Adjudikazio-prozedura.....	7
7. klausula. Adjudikazio-irizpide objektiboak.....	7
8. klausula. Behin-behineko bermea.....	8
9. klausula. Proposamenen aurkezpena.....	8
10. klausula. Baliabide elektronikoak.....	9
11. klausula. Proposamenen forma eta edukia.....	9
A) 1. GUTUN-AZALA “ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA”. Gutun-azal honetan, dokumentu hauek sartu beharko dira derrigorrez:	9
B) 2. GUTUN-AZALA. “DOKUMENTAZIO TEKNIKOA”.	12
C) 3. GUTUN-AZALA “EKONOMIA-PROPOSAMENA”.	12
12. klausula. Aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioa, hautaketa-irizpideen balorazioa eta proposamenen irekiera.....	13
13. klausula. Adjudikazio-proposamenaren ondorioak. Uko egitea edo atzera egitea.....	13
III. KAPITULUA - ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA	
14. klausula. Behin betiko bermea.....	15
15. klausula. Kontratuaren adjudikazioa.....	15

16. klausula. Aseguruak.....	17
17. klausula. Kontratua burutzea eta formalizatzea.	18
IV. KAPITULUA - KONTRATUAREN EXEKUZIOA	
18. klausula. Arriskuaren eta benturaren printzipioa.....	19
19. klausula. Lan-programa.	19
20. klausula. Lanen zuzendaritza.....	19
21. klausula. Exekuzio-epea.....	20
22. klausula. Kontratuaren luzapena.	20
23. klausula. Kontratuzko betebeharrak ez betetzeagatiko zehapenak.....	20
24. klausula. Kontratistaren ardura kalte-galerengatik.....	21
25. klausula. Kontratua aldatzea.....	22
26. klausula. Kontratua etetea.	22
27. klausula. Kontratua lagatzea.....	22
28. klausula. Azpikontratazioa.....	22
V. KAPITULUA - KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	
29. klausula. Ordainketak eta baloratutako zerrendak.....	24
30. klausula. Prezioen berrikusketa.	24
31. klausula. Kontratistari eska dakizkioken betebeharrak, gastuak, zergak eta ardurak.....	24
32. klausula. Lan-, gizarte- eta ingurumen-betebeharrak.....	25
VI. KAPITULUA - KONTRATUAREN IRAUNGITZEA	
33. klausula. Aurkezteko modua.....	26
34. klausula. Lanak ematea eta zerbitzuak egitea.....	26
35. klausula. Kontratuaren amaiera eta zerbitzuen harrera.....	26
36. klausula. Kontratuaren likidazioa.	27
37. klausula. Lanen jabetza eta izaera pertsonaleko datuen babesa.	27
38. klausula. Bermearen epea.	28
39. klausula. Behin betiko bermearen itzultzea eta deuseztapena.	28

40. klausula. Kontratua ezeztatzea.	29
41. klausula. Administrazioaren eskumenak, erabakien berrikusketa eta eskumeneko auzitegiak.	29
42. klausula. -Kontratistaren betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.	30
GORLIZ UDALERRIKO HIRI-ANTOLAMENDU PLAN NAGUSIAREN BIDEZ, UDAL HIRIGINTZA PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOAK BERRIKUSTEKO UDAL IDAZKETA ETA AHOLKULARITZA-LANAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.	32
1. BALDINTZA-PLUGU HONEN HELMENA.....	32
2. GORLIZKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN NAGUSIAREN DOKUMENTU-EDUKIA.	33
Edukia.....	33
Garapena.....	33
3. LANAK IDAZTEKO, ETA HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZEDURA ETA GORLIZKO PLAN NAGUSIAREN BERRIKUSKETA IZAPIDETZEKO PROZEDURA EZARTZEKO FASEAK.....	35
1. FASEA. Lurraldeko antolamendu-planen eta plan sektorialen azterketa eta plan nagusian zer eragin izango duten, eta ingurumen-eraginak.....	35
2. FASEA. Gorlizko udalerriko etxebizitzaren erabileraren azterketa.....	37
3. FASEA. Ingurumenaren gaineko eraginaren azterketako informazioaren zabaltasunari eta zehaztasun-mailari buruzko kontsulta egiteko dokumentazioa	37
4. FASEA. Plangintzaren aurrerapena egitea.....	38
5. FASEA: Aurrerapenaren edukiari buruzko herritarren parte-hartzea, eta plan nagusia egiteko irizpideak eta helburuak hartzea.....	40
6. FASEA: Plan nagusia egitea.....	41
7. FASEA: Aurrerapenaren edukiari buruzko herritarren parte-hartzea, eta plan nagusia egiteko irizpideak eta helburuak hartzea	47
8. FASEA: Herritarren parte-hartzearen laburpena, eta plan nagusiaren hasierako onespenera aurkeztutako alegazioei emandako erantzunak	49
9. FASEA: Behin-behineko onespeneraren fasea	49
10. FASEA: Behin betiko onespenera.....	50
4. IDAZKETA-TALDEAREN ERAKETA ETA BETEBEHARRAK.	51
5. PROPOSAMENEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA	53

5.1.-Erabilitako metodologia	53
5.2- Parte hartzeko mekanismoa	53
5.3.- Hobekuntzak.	53
6.- PROPOSAMENAREN FORMATUA:.....	55
0. ERANSKINA. POSTA ELEKTRONIKO BIDEZ JAKINARAZPENAK EGITEKO BAIMENA	56
I. ERANSKINA. KONTRATUAREN EZAUGARRIAK.....	¡Error! Marcador no definido.
II. ERANSKINA. EKONOMIA-PROPOSAMENAREN EREDUA	64
III. ERANSKINA. ABALAREN EREDUA	65
IV. ERANSKINA. ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKU EDO BATERAEZINTASUNAK EZ IZATEAREN, ZERGA BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAKOAK BETETZEAREN ETA EGINTZA-EPEALDIAN UDALAREKIN ZORRIK EZ IZATEAREN ADIERAZPEN ARDURATSUAREN EREDUA.....	66
V. ERANSKINA. LIZITATZAILEEN ERREGISTROAN SARTUTAKO DATUAK INDARREAN EGOTEAREN ADIERAZPEN ARDURATSUAREN EREDUA	67

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN PLEGUA, GORLIZ UDALERRIKO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA BERRISKUSTEKO UDALEKO IDAZKETA- ETA AHOLKULARITZA-LANEN KONTRATUA, IRIZPIDE UGARIREKIN PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESLEITU BEHARREKOA, ZUZENDU BEHAR DUTENAK.

LEHEN KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. klausula. Araubide juridikoa.

Kontratu hau administrazio-kontratu bat da. Aldeek berariaz bete beharko dute plegu honetan ezarritakoa, bai eta dagokion agindu tekniko zehatzen pleguan jasotakoa ere.

Pleguetan aurreikusi ez diren kasuetan, kontratu publikoen arloko Estatuko oinarritzko legedia aplikatuko da kontratuan: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duena; 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legea (SPKL) partzialki garatzen duena; eta Sektore Publikoko Kontratuen Legea (SPKL) ezarritakoari aurka egiten ez dion artean, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorra, 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koak, aldatzen duena. Haien ordeztu, oinarritzkoak ez diren kontratu publikoei buruzko estatuko arauak, administrazio zuzenbideko gainerako arauak, eta haiek aplikatu ezin direnean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

2. klausula. Kontratuaren xedea.

Plegu honek aipatzen duen kontratuaren xedea da **I. eranskineko 1. atalean** deskribatutako eta agindu tekniko zehatzen pleguan zehaztutako lanak egitea. Kontratuaren bidez zer administrazio behar aseko diren eta kontuan hartu beharreko faktore mota guztiak zehatzen dira agindu tekniko berezien plegu horretan.

Agindu tekniko zehatzen pleguak nahiz administrazio-klausula zehatzen pleguak kontratuzko izaera dute, eta horrenbestez, sinatu egin behar dira kontratua gauzatzeko egintzan bertan, esleipenarekin adostasuna lortu dela egiaztatzeko.

3. klausula. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua eta kontratuaren prezioa.

I. eranskineko 3. atalean dago adierazita zenbatekoa den lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, eta atal horretan bertan aurreikusitako urtekoetan dago banatuta. Aurrekontua zehazteko sistema **I. eranskineko** aipatu **3. atalean** adierazitakoa da. Aurrekontu hori kalkulatzeko, baloratzeko faktore eta gastu guztiak hartzen dira kontuan. Kontratuzko dokumentuen eta indarrean dagoen legediaren arabera, adjudikaziodunaren konturakoak dira gastu horiek eta beste edozein zerga, baita balio erantsiaren gaineko zerga ere, partida independente gisa ageri dena.

Proposamenetan ere balio erantsiaren gaineko zerga partida independentean adieraziko da. Baldin eta proposamen batzuen zenbatekoa BEZa gabe handiagoa bada lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren zerga-oinarria baino, proposamen horiek baztertu egingo dira. Kontratuaren prezioa adjudikazioaren zenbatekoa izango da, eta inolaz ere ez da izango lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino handiagoa. Adjudikazioaren ondorioz lor daitekeen beherakadaren bidez, hala dagokionean, aurreikusitako urteroko bakoitzaren zenbatekoen beherakada proportzionala egingo da.

I. eranskineko 3. atalean adierazitako kredituek babesten dute zerbitzuaren exekuzioa.

Kontratua Europako funtsen bidez finantzatzen bada, Europar Batasunaren Ituneko xedapenak eta itun horren arabera ezarritako egintzak bete behar ditu. Horrez gainera, koherentea izan behar du garapen jasangarriaren eta ingurumenaren hobekuntzaren aldeko erkidegoko jarduerekin, politikekin eta lehentasunekin, eta horretarako, hazkuntza, lehiakortasuna, enplegua, gizarteratzea eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu behar ditu, 1083/2006 (EE) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera (1083/2006/EE Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko uztailaren 11koa, Eskualde Garapeneko Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari eta Kohesio Funtsari buruzko xedapen orokorrak ezartzen dituen).

4. klausula. Kontratistaren profila.

Gorlizko Udalaren web-orriaren bidez atzi daiteke kontratazio-organoaren kontratistaren profila.
www.gorliz.org

II. KAPITULUA

LIZITAZIOA

5. klausula. Kontratatzeke gaitasuna eta enpresak hautatzeko irizpideak.

Hauek izango dute kontratu honen adjudikazioa lortzeko aukera: pertsona fisikoak edo juridikoak, espainiarrak edo atzerritarrak, norberaren izenean edo enpresaburuen aldi baterako elkartean, jarduteko gaitasuna dutenak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 60. artikuluan ezarritako Administrazioarekin kontratatzeke debekuak edo bateraezintasunak egin ez dituztenak, eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela ziurtatzen dutenak. Azken betekizun horren ordezkioz dagokion sailkapena erabiliko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera derrigorrezkoa den kasuetan, **I. eranskineko 5. atalean** ezarritakoari jarraiki. Era berean, I. eranskineko 5. atal horretan, enpresak hautatzeko zer irizpide aplikatuko diren adierazten da, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorren 11. artikuluan aurreikusitakoarekin bat eginez. Atal horretan bertan adierazitako baliabideen bidez ziurtatuko da irizpide horiek bete direla.

Halaber, hala dagokionean, **I. eranskineko 6. atalean** zehazten den enpresa-gaikuntza edo gaikuntza-profesionala izan beharko dute enpresaburuek.

Horrez gainera, adjudikaziodunak pertsona juridikoak badira, plegu honen xede den kontratuaren prestazioek, estatutuen edo sortze-arauen arabera, berezkoak zaizkion xedeak, helburua edo jarduera-esparrua barne hartu behar dituzte.

Erkidegokoak ez diren enpresek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 55. artikuluan ezarritako betekizunak ere bete behar dituzte.

6. klausula. Adjudikazio-prozedura.

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleitu da askotariko irizpideen bitartez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 138.2., 157. eta 150. artikuluek aplikatuz, legezko testu horretan ezarritako baldintzei eta betekizunei jarraiki.

7. klausula. Adjudikazio-irizpide objektiboak.

I. eranskinaren 8.1. atalean, dagokien haztapenarekin, edo halakorik izan ezean, garrantzi handiena duenetik garrantzi txikiena duenera, ezarritakoak dira kontratuaren adjudikazioaren oinarri izango diren irizpide objektiboak.

Era berean, atal horretan adieraziko dira zer parametro objektiboren arabera hautemango den proposamena ezin dela bete, ezohiko balioak edo neurriz kanpokoak aintzat hartu izanagatik.

Balio-judizio bat kontuan hartuta kuantifikatzen diren irizpideek automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei dagokien haztapena baino handiagoa esleitura badute, kontratuaren xede den esparruan adituak direnek osatutako batzorde batek edo organismo tekniko espezializatu batek baloratu beharko ditu irizpide horiek. Batzordea, hala dagokionean, gutxienez hiru kidek osatuko dute. Kontratazio-

organoak izendatuko ditu kide horiek, mahaia eratu baino lehen edo mahaia eratzen den aldi berean, ahal izanez gero, kontratua proposatzen duen organoko kide ez diren bere zerbitzupeko teknikarien artean. Kontratistaren profilean argitaratuko da nola dagoen eratuta batzorde hori. **I. eranskinaren 8.2. atalean** ezartzen da kide horien izendapena edo kide horiek izendatzeko prozedura edo, hala dagokionean, organismo tekniko espezializatuaren izendapena. Balio-judizio baten arabera kuantifikatzen diren adjudikazio-irizpideei buruzko dokumentazioa hasi aurretik argitaratu behar dira.

Korporazioko kide bat edo korporazioko funtzionario bat izango da Kontratazio Mahaiko buru, eta korporazioko funtzionario batek egingo ditu idazkari lanak, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 10. puntuan 817/2009 Errege Dekretuaren 21.2. artikuluekin lotuta ezarritakoaren arabera(3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duena; 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena). Kontratazio Mahaia gutxienez hiru kide izango ditu, eta kide horietako bat izango da idazkaria edo, hala dagokionean, aholkularitza juridikoaren funtzioa esleituta duen organoko titularra, kontuhartzailea, bai eta kontratazio organoak karrerako funtzionarioen artean edo korporazioaren zerbitzupeko langileen artean edo korporazioko kide hautatuen artean izendatutako beste batzuk ere. Korporazioko funtzionario batek egingo ditu idazkariaren lanak.

Kontratazio Mahaia kide hauek izango ditu:

Presidenteak:

- Titularra: Arantza Etxebarria Villabeitia andrea.
- Ordezkoa: Itxaso Martín Etxebarria andrea.

Mahaikideak:

1. Titularra: Koldo Muñiz Estancona jauna.
1. Ordezkoa: Asier García Maguregi jauna.
2. Titularra: Ainhoa Malaxetxebarria Unzetabarrenetxea andrea.
2. Ordezkoa: Oldasne Llona Larrauri andrea.
3. Titularra: M^a Carmen Basabe Irusta andrea.
3. Ordezkoa: José Joaquín Giron Carter jauna.
4. Titularra: Juana Gorostiza Fernández de Villarán andrea.
4. Ordezkoa: Atsegine Solozabal García andrea.
5. Titularra: Aintzane Ezpeleta Irizar andrea.
5. Ordezkoa: Aitor López Eraña jauna.

Idazkaria:

- Titularra: Karmele Bilbao Garai andrea.
- Ordezkoa: Edurne Artolozaga Bengoetxea andrea.

8. klausula. Behin-behineko bermea.

Ez da eskatuko behin-behineko bermerik.

9. klausula. Proposamenen aurkezpena.

Lizitazio-iragarkian adierazitako eran, epean eta lekuan aurkeztuko dira proposamenak, eta Administrazio Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorraren 80. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

www.gorliz.org web-orrian, kontratu honen lizitazio-deialdiari buruzko informazioa emango da, bai eta administrazio-klausula zehatzen pleguak eta dokumentazio osagarria ere, hala dagokionean.

Lizitatzailerik pleguei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio osagarria eskatu ahal izango dute lizitazio-iragarkian eskaintzak hartzeko zehaztu den mugaeguna baino 7 egun lehenago. Proposamenak aurkezteko epea amaitu baino sei egun lehenago emango da informazio hori.

Enpresaburu bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Halaber, enpresaburuak bere izenean aurkeztu badu proposamena, ezin izango du sinatu beste proposamenik beste enpresaburu batzuekin aldi baterako elkartean, ez eta aldi bateko elkartean batean baino gehiagoan agertu ere. Debeku horiek ez badira betetzen, ez da onartuko enpresaburu horrek sinatutako proposamenetako bakar bat ere.

Proposamenak aurkezten badira, enpresaburuak plegu honetako klausulak onartu beharko ditu baldintzarik gabe, bai eta kontratu hau zuzentzen duten agindu teknikoaren pleguko klausulak ere, inolako salbuespenik gabe.

Aldaketei edo hobekuntzei dagokienez, **I. eranskinaren 11. atalean** xedatutakoa aplikatuko da.

10. klausula. Baliabide elektronikoak.

Debekatuta dago baliabide eta euskarri elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzea proposamenak eta dokumentuak aurkeztean.

11. klausula. Proposamenen forma eta edukia.

Proposamenak eta proposamenekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa HIRU (3) GUTUN-AZALETAN aurkeztuko dira. Gutunek itxita eta lizitatzailerik edo lizitatzailerik ordezkaririk sinatuta egon beharko dute. Gutun-azal bakoitzaren kanpoaldean hauek egon behar dute idatzita: erreferentzia-zenbakia eta eskaintzen duten kontratuaren izena, lizitatzailerik izen-abizenak edo enpresaren sozietate-izena eta dagokion IFZ. Gutun-azalen barrualdean bertan dauden dokumentuen zenbakizko zerrenda bat jaso beharko da. Gutun-azalak honela banatuko dira:

A) 1. GUTUN-AZALA "ADMINISTRATIO-DOKUMENTAZIOA". Gutun-azal honetan, dokumentu hauek sartu beharko dira derrigorrez:

1.- Jarduteko gaitasuna.

1.0.- Posta elektronikoko helbidea – Enpresa lizitatzailerik posta elektronikoko helbide bat emango du, administrazio honek espedientea izapidetzean behar dituen eskakizunak, berri-emateak eta jakinarazpenak egin ahal izateko bitarteko horren bidez. Xede horretarako, 0 ERANSKINEKO erdua beteko du.

1.1.- Enpresa pertsona juridiko bat balitz, Merkataritza Erregistroan erregistratutako eratze idazkia edo aldatzeko idazkia, hala dagokionean, betekizun hori derrigorrezkoa denean aplika daitekeen merkataritzako legediari jarraiki. Derrigorrezkoa ez balitz, eratze idazkia edo dokumentua, jardura arautzen duten arauak jasota dituzten estatutua edo eratze-egintza, dagokien Erregistro ofizialean erregistratuak, bai eta identifikazio fiskaleko kodea, (IFK) ere. Jatorrizko agiriak edo indarrean dagoen legediari jarraiki egiazkoak bezalakoak diren kopiak ekarri behar dira, edo xede horretarako gaitutako funtzionarioak konpultsatutako fotokopia bat. Proposamena aurkezteko unean lizitatzailerak zer araubide juridiko zehatz duen jaso behar duten dokumentu horiek.

1.2.- Enpresaburu indibidual bat bada, NANA edo, hala dagokionean, erregelamenduz NANA ordezkatzeko duen dokumentua. Indarrean dagoen legediari jarraiki egiazkoak bezalakoak diren kopiak ekarri behar dira, edo xede horretarako gaitutako funtzionarioak konpultsatutako fotokopia bat.

1.3.- Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko hitzarmenaren estatu sinatzaileetako enpresaburu ez-espainiarrak badira, erregistro ofizial batean edo merkataritzako erregistro batean izena emanez egiaztatuko dute beren jarduteko gaitasuna, dagokien estatuko legediak eskatutako betekizun bat denean, edo Administrazio Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorraren I. Eranskinean zerbitzuen kontratuetarako adierazitako ziurtagiriak aurkeztuz.

Sektore publikoarekin kontratuak egiteko gaitasuna izango dute unean-unean dagokien prestazioa egiteko gaituta dauden Europar Batasuneko estatu kideetako enpresa ez-espainiarrak, ezarrita dauden estatuko legediari jarraiki. Enpresa horiek kokatuta dauden estatuko legediak baimen berezi bat edo antolaketa jakin bat eskatzen badu unean-unean prestazioa egin ahal izateko, betekizun hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute enpresek.

1.4.- Aurreko paragrafoak barne hartzen ez dituen enpresa atzerritarrek badira, diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresa kokatuta dagoen lekuko Espainiako bulego kontsularren txostena, enpresak akreditazioa eman ondoren. Enpresa horiek tokiko erregistro profesionalen, merkataritzako erregistroan edo antzeko erregistro batean erregistratuta egon behar dute, eta horrela egon ezean, tokiko salerosketan ohikotasunez jardun behar dute kontratuaren xede diren jardueren esparruan.

Era berean, Espainiaren diplomaziako misio iraunkorraren txostena edo Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren estatu sinatzaile izateari buruzko Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren txostena ere aurkeztu beharko dute, baldin eta erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuak badira edo, bestela, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 55.1 artikuluan aipatzen den elkarrekikotasun-txostena.

1.5.- Kontratua egiteko beharrezko enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala egiaztatzeko dokumentazioa, hala dagokionean, **I. eranskinaren 6. atalean** eskatutakoari jarraiki, gaikuntza hori jasotzen duen sailkapenaren ziurtagiria ematen denean izan ezik.

2.- Ahalordeak askiestea.

Beste baten izenean aurkeztu edo proposamenak sinatzen dituztenek edo pertsona juridiko bat ordezkatzeko dutenek beren askietsi deklaraturako ordezkariaren ziurtatzeko ahala ere aurkeztu beharko dute, jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua. Era berean, ahalordea edo ordezkariaren eman zaion pertsonaren NANaren fotokopia konpultsatua ere aurkeztu beharko dute. Ordezkaritza

ziurtatzeko dokumentuan jasota egongo balitz ahalmenak eskuordetzean behin betiko emanda daudela, Merkataritza Erregistroan erregistratuta egon beharko du ordezkaritza horrek.

3.- Administrazioarekin kontratatzeko debekurik eta bateraezintasunik ez dagoela egiaztatzeko eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela justifikatzeko adierazpenak.

Plegu honen **IV. eranskinean** zehaztutako ereduari jarraiki, enpresaburuak, pertsona fisiko bat bada, edo enpresak, enpresako administratzaileek eta ordezkariak, pertsona juridiko bat bada, bai eta proposamenaren pertsona sinatzaileak ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 60. artikuluan adierazitako kontratatzeko debekurik eta bateraezintasunik egin ez izanaren adierazpen arduratsua.

Adierazpen horretan berariaz jasoko da indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrekin eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrekin egunean daudela.

4.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala.

Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela egiaztatu beharko dute lizitatzailleek, lizitazio-iragarkian zehazten diren eta **I. eranskinaren 5. atalean** zerrendatzen diren baldintzetan eta baliabideen bidez.

Kaudimena egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak har ditzake oinarritzat enpresaburuak, erakunde horiekin dituen lotura juridikoak edozein izanda ere, baldin eta egiaztatzen badu kontratua gauzatzeko egiaz baliabide horiek dituela.

Edonola ere, kontratazio-organoak enpresaburuek emandako datuen konfidentziasuna errespetatuko du.

5.- Enpresaburuen aldi baterako elkarteak.

Adjudikazioaren aurreko fasean enpresaburuen aldi baterako elkartearen administrazioaren aurrean eraginkorra izan dadin, enpresaburu guztiek eta bakoitzak klausula honetan eskatutako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, bai eta konpromiso solidarioa adierazteko idatzi bat ere. Idatzi horretan hauek adierazi beharko dituzte: elkartearen osatzen duten enpresaburuen izenak eta zer baldintzatan eratzen duten elkartearen parte-hartzea; adjudikaziodunak izatea suertatzen bazaie, aldi baterako elkartearen formalki eratzearen konpromisoa bere gain hartzea, eta elkartearen ordezkari edo ahalgabetatutako bakar bat izendatzea, eskubideak erabiltzeko eta kontratutik eratorritako betebeharrak betetzeko ahal askietsiak izango dituenak. Elkartearen osatzen duten enpresa bakoitzeko ordezkariak sinatu behar dute dokumentu hori.

Aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa zehazteko eta haren ondoretarako, elkartearen kide bakoitzak egiaztatutako ezaugarriak metatuko dira. Sailkapena eskatuz gero, ezaugarri horien metatze-erregimena Administrazio Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorraren 51. eta 52. artikuluetan ezarritakoa izango da.

Sailpena eskatuta, aldi baterako enpresaburuaren elkarte berean enpresaburu nazionalak, erkidegokoak ez diren enpresaburu atzerritarrek edo erkidegoko enpresaburu atzerritarrek daudenean aldi berean, lehenengo biek egiaztatu beharko dute zerbitzuen kontratista gisa sailkatuta daudela, eta azkenekoek, berriz, beren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala.

Kontratua enpresaburuaren aldi baterako elkarte bati esleitu balitzaioke, Elkarrekin eskritura publikoan egiaztatuko du bere eraketa, bai eta kontratua gauzatu aurretik elkarte horri esleitutako IFK ere. Elkarrekin eta kontratuaren iraupena bera izango dira, amaitzen den arte.

6.- Atzerriko enpresen jurisdikzioa.

Enpresa atzerritarrek adierazpen bat aurkeztu beharko dute, non adierazi beharko duten Espainiako edozein epaitegi edo auzitegi motaren jurisdikzioaren mende jarri direla, kontratuak zuzenean edo zeharka eragin ditzakeen gorabehera guztietarako, eta hala dagokionean, egoki dakiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egin beharko diote.

7.- Lizitatzailen erregistroa.

Lizitatzailak Euskal Autonomia Erkidegoko eta dagokien lurralde historikoko Kontratisten Erregistroko inskripzio-ziurtagiria ematen badu, inskripzio-ziurtagiria indarrean duten lizitatzailak ez dute aurkeztu beharko kontratazio deialdietan jarduteko gaitasunari eta ahalordea askiesteari buruzko dokumentaziorik, administrazioarekin kontratatzeko debekurik eta bateraezintasunik ez dagoela egiaztatzeko adierazpenik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela justifikatzeko adierazpenik eta, hala dagokionean, parte hartu nahi duten kontratu motetarako sailkatuta daudela egiaztatzeko ziurtagiririk.

Lizitatzailen Erregistroan jasotako datuak indarrean daudela egiaztatzeko adierazpen arduratsu bat aurkeztu beharko du enpresaburuak lizitazioan, plegu honen **V. eranskineko** ereduaren arabera. Erregistroko datuak aldatu balira, adierazpen horretan aldaketa horri buruzko aipu zehatza egin beharko da, bai eta dagokion dokumentazioa aurkeztu ere.

8.- Talde bereko enpresak.

Talde bereko enpresek, Merkataritzako Kodearen 42.1. artikularen ustezko kasuetako batean daudenak hartuz talde bereko enpresatzat eta adjudikazioan banaka lehiatzeko zenbait proposamen dituztenak, adierazpen bat aurkeztu beharko dute, non adierazi beharko duten talde bereko enpresak direla.

Halaber, taldea osatzen duten bazkideei buruzko adierazpen zehatza aurkeztu beharko dute, zenbait proposamen aurkeztuta, Merkataritzako Kodearen 42.1. artikuluan ezarritako ustezko aukeretakoa bat gertatzen zaien sozietateek.

B) 2. GUTUN-AZALA. "DOKUMENTAZIO TEKNIKOA".

Gutun-azal honetan, hala dagokionean, **I. eranskinaren 9. atalean** eskatutako dokumentazio teknikoa sartuko da, formularen bidez kuantifikatu gabeko irizpideak, balio-judizio baten mendekoak direnak, aplikatzearen, **aipatu eranskinaren 8.2. atalean** zehaztutako kontratua adjudikatze.

Halaber, lizitatzailerak, oro har, komenigarritzat jotzen duen dokumentazio oro ere sar dezake gutun-azal honetan, baina ezin izango du prezioari buruzko dokumentazio bakar bat ere sartu.

C) 3. GUTUN-AZALA. "EKONOMIA-PROPOSAMENA".

Gutun-azal honetan ekonomia-proposamena sartuko da. Proposamen hori plegu honen II. eranskinean zehaztutako ereduaren arabera idatziko da. Ez dira onartuko administrazioak eskaintza kontuan hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ulertzea eragozten duten ahazteak, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak. Proposamenen bat ez baletor bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua gaindituko balu, ezarritako eredia funtsean aldatuko balu, proposamenaren zenbatekoan bistako akatsa ekarriko balu edo lizitatzailerak aitortuko balu ez duela bideraezina egiten duen akatsik edo hutsaltasunik, Kontratazio Mahaia proposamen hori baztertuko luke, eta ez da izango ukatzeko nahiko arrazoiak ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, zentzua aldatzen ez badu.

Proposamenean, jasanarazi behar den balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa adierazi beharko da partida independente gisa.

Era berean, **I. eranskinaren 20. atalean** hala eskatzen bada, kontratuaren zer zati azpikontratatzea aurreikusi duten adierazi beharko da 3. gutun-azalean. Azpikontratazio horren zenbatekoa, eta enpresa-izena edo -profila adierazi beharko dira. Zati horren ardura emango dieten azpikontratisten kaudimen profesionalaren edo teknikoaren baldintzei ere erreferentzia egin beharko zaie.

12. klausula. Aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioa, hautaketa-irizpideen balorazioa eta proposamenen irekiera.

Dokumentazioa kalifikatzeko Kontratazio Mahaia eratu ondoren, **1. gutun-azalean** aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo aipatu gabe utzi diren gauzak daudela erreparatuko balu Kontratazio Mahaia, interesdunei jakinaraziko lieke telefax, helbide elektroniko edo interesdunak jakinarazpena jaso izanaren, zer datatan jaso duen eta jakinarazpenaren edukiaren ziurtasuna eman dezakeen beste edozein baliabideren bidez. Bost egun naturaleko epea emango da gehienez, lizitatzailerak akats horiek zuzen ditzaten edo azalpenak edo dokumentu osagarriak aurkez ditzaten.

Dokumentazioa kalifikatu eta, hala dagokionean, zuzenketa-jarduketak egin ondoren, hautaketa-irizpideak zer enpresek betetzen dituzten zehazten hasiko da Kontratazio Mahaia, **I. eranskinaren 5. atalean** euskararen jakintzari buruz ezartzen diren salbuespenak kenduta, lizitazioan onartutako enpresak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak berriaz adieraziko direlarik.

Ondoren, hala dagokionean, balio-judizio baten arabera haztatuko diren irizpideei buruzko dokumentazioa duten gutun-azalak (**2. gutun-azala**) irekiko dira egintza publiko batean. Dokumentazio hori baloratzeko ardura duen organoari emango zaio gutun-azal horietako dokumentazioa, eta dokumentuetan idatziz jasoko da egindako guztia.

Administrazio-dokumentazioaren kalifikazioaren emaitzaren berri emango die lizitatzailerai

Kontratazio Mahaiak eta, hala dagokionean, balio-judizio baten arabera haztatzen diren adjudikazio-irizpideen aurretiko balorazioaren berri. Ondoren, **3. gutun-azala** "Ekonomia-proposamena" irekiko da, eta onartutako enpresen eskaintzak irakurriko dira. Jarraian, Kontratazio Mahaiak, hala dagokionean egindako txostenekin batera, akta eta egokitza jotzen duen proposamena aurkeztuko dio kontratazio-organoari. Proposamen horrek **1. eranskinaren 8. atalean** adierazitako irizpideen haztapena jasoko du.

13. klausula. Adjudikazio-proposamenaren ondorioak. Uko egitea edo atzera egitea.

Kontratazio Mahaiaren adjudikazio-proposamenak ez du proposatutako enpresaburuaren aldeko eskubiderik sortzen. Enpresaburuak ez du administrazioarekiko eskubiderik lortuko, ez badu kontratua gauzatzen.

Adjudikazioa egin baino lehen, kontratazio organoak kontratua egiteari uko egiten badio edo prozesua atzera botatzen badu, lizitatzailerak konpentsatu beharko ditu izan dituzten benetako gastuengatik, lizitatzailerak eskaera egin eta beren ekonomia-balorazioa behar bezala arrazoitu ondoren.

III. KAPITULUA

ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA

14. klausula. Behin betiko bermea.

Ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkezten duen lizitatzailleak behin betiko berme bat egin beharko du, kontratazio-organoaren eskura egongo dena. Kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoaren %5a izango da berme horren zenbatekoa, B.E.Z.a kanpo utzita, **I. eranskinaren 13. atalean** aurreikusitakoaren arabera. Lizitatzailleak 10 egun balioduneko epea eratu beharko du berme hori, administrazioaren eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Edonola ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 100. artikulua aipatzen dituen kontzeptuen ardura hartuko du behin betiko bermeak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 95.-102. artikuluetan eta Administrazio Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorraren 55., 56. eta 57. artikuluetan agindutakoari jarraiki eratuko da behin betiko bermea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginean aurreikusitakoari kontra egiten ez badio. Hautatutako moduaren arabera, plegu honen **III. eranskinean** ezartzen den eredura egokituko da bermea, eta Gorlizko Udaleko Diruzaintzan utzi beharko da kontsignan.

Kontratua aldatzearen ondorioz, bermearen prezioa aldatzen bada, bermea 15 egun naturaleko epean egokituko da berriz, enpresaburuari aldatetaren akordioa jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita, aldatetaren ondoriozko kontratuaren prezioarekiko proportzio egokia izan dezan. Epe horretan berean, zehapenak eta kalte-ordainak gauzatzen diren egunetik kontatzen hasita, adjudikaziodunak berme berri beharko du edo dagokion zenbatekoan handitu. Ez badu halakorik egiten, ebazpena egiteko arrazoia izango da.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 95.2. artikuluan aurreikusitako berme osagarriari dagokionez, hala dagokionean, **I. eranskinaren 14. atalean** xedatutakoa hartu beharko da aintzat, eta behin betiko bermetzat hartuko da, xede guztietarako. Kontratuaren prezioaren ehuneko 10ekoa izan daiteke guztizko bermearen zenbatekoa.

15. klausula. Kontratuaren adjudikazioa.

Kontratazio-organoak, oro har, ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkezten duen lizitatzaileri esleituko dio kontratua, **I. eranskinaren 8. atalean** ezarritako irizpideak aplikatzearen bidez, eta ez du eskaintzaren balio ekonomikoa bakarrik kontuan hartuko. Adjudikazio-irizpide objektiboen arabera onar daitekeen proposamen bakar bat ere ez badago, lizitazioa esleitu gabetzat jo ahal izango du.

Hala dagokionean, **1. eranskinaren 5. atalean** euskararen jakintzari buruz xedatutakoa kontuan hartu beharko da.

Adjudikazioa lortzeko lehentasuna izango dute gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen lan-sustapenean eta laneratzean berariaz jarduten duten enpresek aurkeztutako proposamenek, ekonomikoki onuragarrienak diren proposamenen eskubide-berdintasunean. Kontuan hartuko da

lizitatzailleak gutxienez bere lanpostuen ehuneko 30a Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren seigarren xedapen gehigarriaren 2. atalean adierazitako taldeetako kideekin kontratatze duen konpromiso formala. Gizarte zerbitzu eskudunek ziurtatuko dute pertsona horien egoera.

Ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzailleak bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela ziurtatu beharko du. Horretarako, hamar egun balioduneko epea emango zaio: Hauen arabera egiaztatuko du lizitatzailleak betebeharrak betetzen dituela:

Zerga-betebeharrak:

a) Ekonomia-jardueren gaineko zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela ziurtatzeko jatorrizko agiria edo agiriaren kopia konpultsatua, ekitaldi horretakoa, baldin eta zerga horri atxikitako jarduerak egiten baditu, proposamena aurkezten duen datan egiten dituen jarduerekin lotuta, edo bestela, azkeneko egiaztagiria, aipatu zergaren matrikulan baja eman ez izana adierazten duen adierazpen arduratsu batekin batera.

Zergatik salbuetsita dauden subjektu pasiboek adierazpen arduratsu bat aurkeztu beharko dute, non adierazi beharko duten zergatik dauden salbuetsita. Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateginaren, 82.1. artikuluen e) eta f) ataletan ezarritako salbuespenetako batean egonez gero lizitatzaillea, Zerga Administrazioen Estatuko Agentziak salbuespena eman izana egiaztatzen duen ebazpen zehatza ere aurkeztu beharko du.

Enpresa-taldeek eta enpresen aldi baterako elkarteek zergan alta emanda daudela egiaztatu beharko dute, taldeko enpresa kideei dagokien tributazioa edozein izanda ere.

b) Zerga Administrazioen Estatuko Agentziak egindako ziurtagiri positiboa, non Administrazio Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorraren 13. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen direla generikoki jasotzen den.

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak:

Gizarte Segurantzako Diruzaintzak egindako ziurtagiri positiboa, non Administrazio Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen direla generikoki jasotzen den.

Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioko Antolaketa Juridikoko eta Gizarte Segurantzaren Erakunde Laguntzaileen Zuzendaritza Nagusiaren 1996ko otsailaren 23ko Ebazpenean (martxoaren 7ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) xedatutakoaren arabera, afiliatu gabe eta Gizarte Segurantzaren dagokien erregimenean alta eman gabeko profesional elkargokideen kasuan, dagokien Elkargo Profesionaleko Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateko ziurtagiri bat eman beharko dute, Elkargo horretako kide direla egiaztatzen duena, ebazpen horri jarraiki 1996ko otsailaren 23ko Ebazpenean (1996ko otsailaren 23ko Ebazpena, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioko Antolaketa Juridikoko eta Gizarte Segurantzaren Erakunde Laguntzaileen Zuzendaritza Nagusiarena, azaroaren

8ko 30/1995 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian eta bosgarren xedapen iragankorrean jasotako Gizarte Segurantzaren arloko aurreikuspenak aplikatzeko jarraibideak ematen dituen; 30/1995 Legea, azaroaren 8koa, aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzekoa). Ziurtagiri horiek aurkezteak ez du interesduna salbuesten plegu honetan adierazitako gainerako betebeharrak justifikatzetik, bere kargupean langileak dituenen. Langilerik ez badu, egoera hori adierazpen arduratsu bidez egiaztatu beharko du.

Halaber, aipatu hamar egun balioduneko epean, behin betiko bermea eratu dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da, bai eta lizitazio-iragarkien ordainketaren ordainagiriak ere, eta hala dagokionean, kontratuaren exekuzioan erabiliko dituela edo exekuzio horri esleituko dizkiola agindu dituen baliabideak egiatan eskuragarri dituela egiaztatzeko dokumentazioa.

Ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzailerak gizarte-bazterketako egoeran zeuden pertsonak kontratatzeke konpromisoa hartu bazuen, beste dokumentu hauek ere aurkeztu beharko ditu epe horretan bertan: egoera hori egiaztatzen duten gizarte zerbitzu publiko eskudunen txostenak, lan-kontratuak eta Gizarte Segurantzari kotizatzen ari zaiola egiaztatzeke dokumentuak.

Eskatutako dokumentazioa ez bada aurkeztzen aipatu epean, lizitatzailerak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da, eta orduan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailerari, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera.

Proposamenak ireki eta gehienez bi hilabeteko epean esleituko da kontratua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 112.2.b) artikuluan presazko gisa kalifikatutako espedienteen inguruan ezarritakoa betetzeari utzi gabe. Epe hori hamabost egunez luzatuko da, baldin eta eskaintzetan ezohiko balioak edo neurrigabeko balioak hautematen badira.

Adierazitako dokumentazioa ondo aurkeztu eta behin betiko bermea eratu ondoren, dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua kontratazio-organoak, kontratazio arloko errekurso bereziaren bidez adjudikazioaren behin-behineko berrikusketa egiteari utzi gabe.

Kontratua adjudikatu eta errekursoak aurkezteko epea errekurtsorik aurkeztu gabe igaro ondoren, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesdunen eskura geratuko da. Interesdunek ez badute hartzen beren dokumentazioa adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo hiru hilabeteetan, administrazioa ez da dokumentazio hori zaintzera derrigortuta egongo.

16. klausula. Aseguruak.

Kontratista derrigortuta dago **I. eranskinaren 15. atalean** adierazten diren aseguru-polizak izenpetzera kontratazio-organoak aurretik onartu dituen konpainiekin, aipatu atalean ezarritako kontzeptu, zenbateko, estaldura, iraupen eta baldintzekin.

17. klausula. Kontratua burutzea eta formalizatzea.

Kontratua formalizazioaren bidez burutuko da. Formalizazioa administrazio-agiri batean egingo da hamabost egun balioduneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Aurretik eta hala dagokionean, adjudikaziodunak kontratazio-organoaren aurrean egiaztatu beharko du **I. eranskinaren 15. atalean** adierazitako polizak izenpetuta dituela. Baldin eta kontratuari kontratazio arloko errekurso berezia egin ahal bazaio, kontratua formalizatzeko eskakizuna jaso eta hurrengo bost egunetan formalizatuko da kontratua, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea kontratuaren formalizazioaren etendura prestatuta duen errekurtsorik aurkeztu gabe igaro bada edo etendura kendu bada.

Kontratua eskritura publikoaren bidez formalizatu ahal izango da, baldin eta kontratistak hala eskatzen badu. Kontratistak ordaindu beharko ditu eskritura publikoa egiteak eragindako gastuak. Kasu horretan, kontratistak aipatu dokumentuaren kopia legeztatu bat eta kopia arrunt bat eman beharko dizkio administrazioari, kontratua gauzatu eta hilabete bateko gehienezko epean.

IV. KAPITULUA

KONTRATUAREN EXEKUZIOA

18. klausula. Arriskuaren eta benturaren printzipioa.

Kontratuaren exekuzioa kontratistaren arrisku eta benturara egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 215- artikuluan xedatutakoaren arabera.

19. klausula. Lan-programa.

Lan-programa aurkezteko betebeharrari dagokionez, **I. eranskinaren 16. atalean** zehaztutakoa hartuko da kontuan.

Egokia bada, kontratistak lan-programa bat aurkeztuko du. Lan-programa horretan lanaren edukiari aurre egiteko egokitzat jotzen dituen zereginak jasoko ditu, eta hala dagokionean, zeregin bakoitzari dagozkion epe partzialak proposatuko ditu. Xede horietarako, astea eta hilabetea erabiliko dira denbora-unitate gisa, agindu teknikoen pleguan kontrakoa adierazten denean izan ezik. Lan-programak kontratuan zehaztutako data eta epe guztiak errespetatu beharko ditu, eta plegu hartan eskatutako datu guztiak jasoko ditu edo, pleguan datuak zehazten ez badira, 1972ko martxoaren 8ko Aginduaren bidez onartutako Azterketa eta Zerbitzu Teknikoak Kontratatzeko Administrazio Klausula Orokoren Pleguaren 24. klausulan aurreikusitakoak.

Lanak garatzeko adjudikazioduna harremanetan jarri beharko balitz erakunde edo organismo publikoekin, beharrezkoa izango litzateke kontratazio-organoaren baimena izatea.

Kontratazio-organoak lan-programari buruzko erabakiak hartuko ditu, eta aurkeztutako lan-programari beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak, handitzeak eta zehaztasun-maila egin ahal izango dizkio, kontratua betetzeko.

Kontratuzko baldintzak aldatzen diren aldiro, kontratistak programa eguneratu eta gaurkotu beharko du.

20. klausula. Lanen zuzendaritza.

Kontratuaren arduradunari dagokio lanak zuzentzea edo, berak lan hori ezin duenean egin, kontratazio-organoak izendatzen duen ordezkariari. Kontratuaren arduradunak edo kontratazio-organoaren ordezkariaren funtzioak dira:

a) Agindu Teknikoen Plegua eta kontratuan edo xedapen ofizialetan ezarritako gainerako baldintzak interpretatzea.

b) Kontratua exekutatzeke beharrezko baliabideak eta antolaketa eskatzea exekuzioaren fase bakoitzean.

c) Agindu egokiak ematea, kontratuaren xedea lortzeko.

d) Egitea komeni den aldaketak proposatzea.

e) Ziurtagiri partzialak egitea, hala dagokionean, eta egindako lanei dagozkien fakturak egitea, adostutako exekuzio- eta ordainketa-epeen arabera.

f) Kontratuaren garapenean sor daitezkeen gertakari guztiak izapidetzea.

g) Lanak ondo garatzeko eta lanak ikuskatzeko egokitzat jotzen diren behar adina bileretarako deialdia egitea. Enpresa adjudikazioduneko ordezkaritzak derrigorrez joan beharko du bilera horietara, kontratua exekutatzean esku-hartzeren bat egin behar duten profesionalek, teknikariek, abokatuek edo espezialistek lagunduta.

21. klausula. Exekuzio-epea.

Plegu honek aipatzen dituen lanak egiteko epe osoa eta epe partzialak **I. eranskinaren 17. atalean** ageri direnak dira, edo kontratuaren adjudikazioan zehazten direnak. Lan-programa onartzean zehaztuko dira epe partzialak, hala dagokionean.

Lan-programa onartutakoan zehazten diren epe partzialak, onespenean zehaztutako ondoreekin, kontratuaren zatitzat hartuko dira, dagozkien legezko ondorioetarako.

Kontratista derrigortuta dago kontratua exekutzeko zehaztu den guztizko epearen baitan betetzera kontratua, bai eta kontratua segidan exekutzeko adierazi diren epe partzialak betetzera ere.

22. klausula. Kontratuaren luzapena.

Aurreko klausulan xedatutakoa betetzeari utzi gabe, berariaz eta bi alderdien adostasunez luzatu ahal izango da kontratua, bukatu baino lehen. Luzapenek, banaka edo denak batera hartuta, ezin izango dute jatorrian ezarritako epea gaintitu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 303. artikuluan xedatutakoarekin bat.

23. klausula. Kontratuzko betebeharrak ez betetzeagatiko zehapenak.

Lanak atzeratu egingo balira, egiten ari diren bitartean, eta baldin eta atzerapen hori ezin balitzaio kontratistari egotzi, kontratazio-organoak epe bat emango dio kontratistari, gutxienez galdutako denbora-tarte bera, bere konpromisoak betetzeko eskaintzen bada. Kontratistak epe txikiagoa eskatzen badu, bere eskaera Administrazio Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorren 100. artikuluan ezarritakoak arautuko du.

Kontratista epe osoa edo epe partzialak betetzen atzeratzen denean, berari egotz dakizkioken kausengatik, eta epe horiek aurreikusita baleude, **I. eranskinaren 17. atalean** xedatutakoa aintzat hartuko da, eta administrazioak era berean kontratua ezeztatu edo zehapenak ezarri ahal izango ditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 212. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Atzerapenengatiko zehapenak kontratuaren prezioaren ehuneko 5aren multiplo batera iristen direnean, kontratazio-organoak kontratua ezeztatze edo zehapen gehiago ezarri kontratua exekutatzeko jarraitu behar den adosteko eskumena izango du. Azken kasu horretan, kontratazio-organoak kontratua bukatze beharrezkotzat jotzen duen denboraz luzatuko du epea.

Era berean, administrazioak eskumen berak izango ditu, epe partzialak betetzeko atzerapenak daudela ikusita, antzematen badu guztizko epea ezin izango dela bete.

Kontratistak kontratuan zehaztutako prestazioen exekuzio partziala ez badu betetzen, administrazioak kontratua ezeztatu edo **I. eranskinaren 18. atalean** zehazten diren zehapenak ezarri ahal izango ditu.

Harrera egin arte, adjudikaziodunak kontratatutako zerbitzuak ondo egiteko ardura izango du eta zerbitzu horietan izandako akatsen erantzulea izango da, eta ez da salbueslea izango eta ez du eskubiderik emango kontratuaren arduradunak edo administrazioaren ordezkariak zerbitzuak egiten ari ziren bitartean aztertu edo gainbegiratu izana edo frogapen, balorazio edo ziurtagiri partzialetan onartu izana.

Kontratua akatsak eginez betetzen badu edo, hala dagokionean, ez badu betetzen kontratuaren exekuzioan behar adina baliabide pertsonal edo material erabiltzeko edo exekuzio horri behar adina baliabide pertsonal edo material esleitzeko konpromisoa, edo ez baditu betetzen kontratuko exekuzio-baldintza bereziak, administrazioak **I. eranskinaren 18. atalean** adierazitako zehapenak ezarri ahal izango dizkio kontratistari, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 212.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zehapenak aplikatzeak eta ordaintzeak ez du baztertzeko kontratistari egotz dakioken atzerapenengatik eragindako kalte-galerengatik administrazioak eskubidez izan dezakeen kalte-ordaina.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 227.3. artikuluan ezarritako azpikontrataziorako baldintzak urratzeak berekin ekar dezake kontratistari azpikontratuaren ehuneko berrogeita hamarrerainoko zenbatekoa izango duen zehapen bat ezartzea.

24. klausula. Kontratistaren ardura kalte-galerengatik.

Kontratua exekutatzeko beharrezkoak diren eragiketen ondorioz hirugarren goi eragindako zuzeneko edo zeharkako kalte-galdera guztien ardura kontratistak izango du. Sortutako kalte-galerak administrazioak emandako agindu baten berehalako ondorio zuzena balira, administrazioak izango du kalte-galera horien ardura, legeetan adierazitako mugen baitan. Edonola ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 214. artikuluan agindutakoa aplikatuko da.

Era berean, kontratistak izango du lanen eta prestazioen kalitate teknikoaren eta egindako zerbitzuen ardura, bai eta kontratua gauzatzean akatsak egitearen edo gauzak egin gabe uztearen edo metodo desegokiak erabiltzearen edo ondorio okerrak ateratzearen ondorioz administrazioari edo hirugarren goi eragindako ondorioak ere.

25. klausula. Kontratua aldatzea.

Kontratua burutu ondoren, eta interes publikoko arrazoiengatik, kontratazio-organoak kontratuan aldaketak egitea adostu ahal izango du I. liburuko V. tituluaren aurreikusitako kasuetan eta eran, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 211. artikuluan araututako prozedurarekin bat, espedientean behar den bezala justifikatuz.

Haren araubideari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 106., 107., 108., 210., 219. eta 306. artikuluetan xedatutakoa hartuko da aintzat.

I. eranskinaren 19. ataletan zehazten dira, hala dagokionean, aurreikusitako aldaketen baldintzak, aldaketa horiek zer-nolako garrantzia izango duten eta zer muga izango dituzten.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 107. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen dela behar adina arrazoitzean soilik egin ahal izango dira **I. eranskinaren 19. atalean** aurreikusi gabeko aldaketak. Aldaketa horiek ezingo izango dituzten aldatu lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak, eta aldaketa horiek beharrezko bihurtzen dituen kausa objektiboa betetzeko ezinbestekoak diren aldaketak izan beharko dute soilik.

26. klausula. Kontratua etetea.

Administrazioak kontratua eten egin behar dela erabaki ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik. Era berean, kontratistak kontratua betetzea eten ahal izango du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 216.5. artikuluan adierazitako egoera emango balitz. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 220. artikuluan xedatutakoak arautuko ditu kontratuaren etetearen ondorioak, bai eta Administrazio Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorren aginduek ere.

27. klausula. Kontratua lagatzea.

Adjudikaziodunak kontratu honetan jatorria duten eskubideak eta betebeharrak hirugarrenengo bati laga ahal izango dizkio, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 226. artikuluan ezarritako kasuak eta betekizunak betetzen badira.

28. klausula. Azpikontratazioa.

Adjudikaziodunak kontratuaren zati bat egitea hitzartu ahal izango du hirugarrenengoekin, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 227. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen badira, eta derrigortuta egongo da legezko testu horren 228. artikuluan ezarritako betekizunak eta betebeharrak betetzera. Edonola ere, kontratistak izango du kontratuaren exekuzioaren ardura osoa administrazioaren aurrean.

Kontratistak administrazioari jakinarazi beharko dio azpikontratatzeko asmoa duela, kontratuaren zer zatiri eragingo dien azpikontratazioak eta nor izango den azpikontratista. Halaber, azpikontratistak erabil ditzakeen elementu tekniko eta giza elementuen eta bere esperientziaren aldetik gai dela frogatu beharko du, azpikontratistak azpikontratatu den kontratuaren zatia egiteko sailkapen egokia duenean izan ezik.

Era berean, administrazioari azpikontratuaren berri ematek idatziarekin batera, kontratistak ziurtatu beharko du azpikontratistak ez duela debekatua kontratatzea, antolamendu juridikoaren arabera edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 60. artikuluko ustezko egoeraren batean egoteagatik. Azpikontratistaren adierazpen arduratsuaren bidez gauzatuko da akreditazio hori.

I. eranskinaren 20. atalean hala eskatzen bada, kontratuaren zer zati azpikontratatzeari aurreikusi duten adierazi beharko dute lizitatzailleek. Azpikontratazio horren zenbatekoa, eta enpresa-izena edo -profila adierazi beharko dira. Zati horren ardura emango dieten azpikontratisten kaudimen profesionalaren edo teknikoaren baldintzei ere erreferentzia egin beharko zaie. Kasu honetan, azpikontratuak eta eskaintzan adierazitakoa bat ez badatoz, ez dira gauzatuko jakinarazpena eta aurreko paragrafoan aipatutako justifikazioak egin eta hogeitun egun igaro arte, administrazioak aurretik espresuki baimentzen duenean edo presazko egoera justifikatu bat denean izan ezik, administrazioak epe horretan aurka dagoela jakinarazpen badu salbu.

I. eranskinaren 20. atalean ezartzen da, hala dagokionean, kontratistak gehienez zer ehuneko azpikontratatzeko baimena duen, eta xede horretarako ez dira kontuan hartzen kontratista nagusiari lotutako enpresekin egindako azpikontratuak edo enpresa nagusiarekin lotuta ez dauden hirugarrenen zer ehuneko azpikontratatzeko betebeharra duen, baldin eta kasu horretan bereizita egin daitezkeen kontratuaren zatiak badira. Betebehar hori kontratuaren exekuzio-baldintza bereiztat hartuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 212.1. eta 223.f) artikuluetan aurreikusitako ondoreetarako.

V. KAPITULUA

KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

29. klausula. Ordainketak eta baloratutako zerrendak.

Kontratuari, kontratuaren onartutako aldaketei eta administrazioak kontratuaren arduradunaren bidez emandako jarraibideei lotuta egiatan egiten dituen lanen ordainketa jasotzeko eskubidea du kontratistak, hitzartutako prezioen arabera, eta hala dagokionean, **I. eranskinaren 21. atalean** zehaztutakoak izango dira ordainketa modua eta ordaintzeko periodikotasuna.

Kontratu osoa edo kontratuaren zati bat egin dela ziurtatzen duten dokumentuak egin eta 30 egun baino beranduago ordainduz gero, kontratistaren aldeko berandutze-interesak eta kobrantza-kostuengatik kalte-ordaina sortuko ditu, 2/2004 Legean aurreikusitako baldintzetan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 216.4. artikuluan ezarritakoari jarraiki (3/2004 Legea, abenduaren 29koa, eragiketa komertzialetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen).

Lanak egiatan egin direla eta kontratatutako prezioak aurkeztean, kontratuaren arduradunak edo kontratazio-organoaren arduradunak, dagozkion balorazioak idatziko ditu. Balorazioak jatorriari egingo zaizkio, eta unean uneko denbora-tartean egindako lanak zehaztuko dira. Kontratistaren kontu-ikuskapenari dagokionez, Administrazio Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorraren 149. artikuluan xedatutakoari erreparatuko zaio.

Egindako lanak ordaintzeko ziurtagiriak dagokion balorazioa oinarri hartuta egingo dira, eta kontratazio-organoaren ordezkariak izapidetuko ditu.

Aurrekontuan honenbesteko finkoan adierazitako partidak agindu tekniko zehatzen pleguan adierazi bezala ordainduko dira.

30. klausula. Prezioen berrikusketa.

Prezioak berrikustean aintzat hartuko da **I. eranskinaren 22. atalean** zehaztutakoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 89.-94- artikuluekin eta Administrazio Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorraren 104. eta 106. artikuluekin bat.

31. klausula. Kontratistari eska dakizkiokeen betebeharrak, gastuak, zergak eta ardurak.

Erakunde adjudikaziodunak bere gain hartuko du, eta ez beste inork, kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko lanean arituko diren langileen ugazaba edo enpresaburua izateko lana, eta derrigorrezkoa izango du indarrean dagoen lan-legedian aurreikusitako formularen bat edo beste erabiltzea. Kontratuaren xede diren lanak egingo dituzten enpresa horietako pertsonak ez dira inolaz ere administrazio publikoetako langile gisa finkatuko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 301. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratuaren xedearen arabera, gaiari buruzko araudiagatik derrigorrezkoa denean, kontratista

kontratuaren xede den zerbitzua ematen ari den langileen enplegatzaile gisa subrogatu beharko da. **I. eranskinaren 23. atalean** zehazten da subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa, hala dagokionean.

Kontratistak izango du lanen eta prestazioen kalitate teknikoaren eta egindako zerbitzuen ardura, bai eta kontratua gauzatzean akatsak egitearen edo gauzak egin gabe uztearen edo metodo desegokiak erabiltzearen edo ondorio okerrak ateratzearen ondorioz administrazioari edo hirugarrengoei eragindako ondorioak ere.

Zerbitzua edo prestazioa emateko, kontratista derrigortuta dago hura ondo egiteko beharrezkoak diren ekipoa eta baliabide osagarriak ematera, kontratuan hitzartutako epeetan.

Kontratistak arduradun edo koordinatzaile bat izendatuko du, udal teknikariekin harremanetan egoteko.

Kontratistak inolaz ere ezin izango ditu langile berriak atxiki zerbitzura, Gorlizko Udalaren berriazko eta idatzizko baimenik izan gabe, langilea subrogatzeko betebeharra berekin dakarren aldi baterako kontratatzen denean.

Halaber, enpresak kontratua bete ahal izateko egin behar diren gastu guztiak ordaintzera derrigortuta egongo da, hala nola gastu orokorrak, finantzarioak, aseguru gastuak, garraioak eta joan-etorriak, materialak, instalazioak, kargupean dituen langileen zerbitzu-sariak, frogatzeko eta probak egiteko gastuak, tasak eta zerga mota guztiak, BEZa, jarduera egiteagatik egoki dakioken zerga eta kontratuaren exekuziotik erator daitezkeen gastu guztiak kontratua indarrean dagoen bitartean. Beraz, gastu horiek guztiak ezin dira jasanarazi partida independente gisa.

Era berean, kontratazio-organoak komenigarritzat jotzen dituen aseguru-polizak bere kargura izenpetzera derrigortuta egongo da kontratista, **I. eranskinaren 15. atalean** ezarritakoaren arabera.

I. eranskinaren 25. atalean adierazitako epean, kontratuaren exekuzioaren kausaz eskura dezakeen informazioa konfidentziala dela (informazio hori guztia atal horretan bertan zehazten da, edo bere izaeragatik horrela erabili behar da) errespetatu beharko du kontratistak.

32. klausula. Lan-, gizarte- eta ingurumen-betebeharrak.

Kontratista derrigortuta dago lan, gizarte-segurtasun, ezinduen gizarteratze eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia betetzera, 31/1995 Legean, 171/2004 Errege Dekretuan, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan eta kontratua exekutatzen den bitartean ateratzen direnetan xedatutakoaren arabera (31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa; 171/2004 Errege Dekretua, urtarilaren 30ekoa, laneko arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez; Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua, urtarilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartua).

Plegu honen **II. eranskinean** ageri den ekonomia-proposamenaren eredian berriaz adieraziko da kontuan hartu direla eskaintzetan betebeharrak horiek.

VI. KAPITULUA

KONTRATUAREN IRAUNGITZEA

33. klausula. Aurkezteko modua.

Bidezkoa bada, adjudikaziodunak kontratuaren xede den lanaren ale osoak aurkeztera derrigortuta egongo da, agindu tekniko zehatzen pleguan zehaztuta daudenak. Hala dagokionean, plegu horren zehaztapenetan zehaztutako dokumentuen eta planoen formatuarekin eta neurriekin aurkeztu beharko ditu.

Proiektu teknikoak egitea helburu duen kontratuetan, adjudikaziodun derrigortuta egongo da plegu horretan adierazitako formatuan aurkeztera kontratu horiek eta CD edo DVD disko konpaktuko euskarrian aurkeztera.

34. klausula. Lanak ematea eta zerbitzuak egitea.

Kontratistak hitzartutako epearen barruan eman beharko ditu lanak. Hala dagokionean, kontratazio-organoaren ordezkariak aurkeztutako dokumentazioa aztertu beharko du, eta agindu teknikoak bete direla irizten badu, lanaren harrera egitea proposatuko du.

Kontratuaren agindu teknikoak ez direla bete irizten badu, kontratistari idatziz emango dizkio jarraibide jakinak eta zehatzak, erreparatu dituen hutsak edo akatsak zuzen ditzan. Halaber, idatziz jasoko ditu idatzi horretan zer epe ematen duen zuzenketa horiek egiteko eta egokitze jotzen dituen oharrak.

Kontratistak ordezkariak egindako oharrei buruzko erreklamaziorik egingo balu, ordezkariak bere txostenarekin batera aurkeztuko dizkio kontratazio-organoari, eta kontratazio-organoak gaiaren inguruan erabakiko du.

Kontratistak ez balu idatziz ezer erreklamatuko kontratazio-organoaren ordezkariaren oharren inguruan, ohar horiekin ados dagoela eta hautemandako akatsak zuzentzera edo konpontzera derrigortua dagoela ulertuko da.

Administrazioa prestazioa ondo egin dela egiaztatzeko modua **I. eranskinaren 26. atalean** zehazten da.

Kontratua iraungitzean, ezin izango da inolaz ere kontratuaren xede diren lanak egin dituzten pertsonak organismo kontratatzaileko langile gisa finkatu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 301.4. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

35. klausula. Kontratuaren amaiera eta zerbitzuaren harrera.

Kontratistak kontratua amaitu duela iritziko da, kontratuaren indarraldi osoa igaro ondoren, kontratistak kontratuaren xede osoa kontratuaren baldintzei jarraiki eta administrazioaren gogara egin badu.

Aurreko klausulan adierazitako izapideak bete ondoren, kontratuaren xedearen prestazioak beharrezko baldintzak betetzen dituela irizten bada, prestazioaren harrera egingo da egintza formal baten bidez. Egintza formal hori kontratuaren xedea eman edo egin eta hurrengo hilabetean egingo da, eta dagokion akta egingo da. **I. eranskinaren 27. atalean** zehazten da kontratuaren harrera nola egingo den.

Kontu-hartzailletza Nagusiari jakinaraziko zaio egintza hori, jakinarazpena egitea nahitaezkoa denean, berak nahi badu egintza horretara agertu, eta inbertsioa egiaztatzeko dauzkan eginkizunak bete ditzan.

Harrera egin arte, adjudikaziodunak kontratuaren xede den prestazioa ondo egin izanaren ardura izango du eta prestazioan izandako akatsen erantzulea izango da, eta ez da salbueslea izango eta ez du eskubiderik emango kontratuaren arduradunak edo administrazioaren ordezkariak zerbitzuak egiten ari ziren bitartean aztertu edo gainbegiratu izana edo frogapen, balorazio edo ziurtagiri partzialetan onartu izana.

Kontratistaren prestazioak ez balitu beteko prestazioari harrera egiteko beharrezko baldintzak, hautemandako akatsak zuzentzeko eta xede horretarako finkatuko den epean betebeharrak betetzeko jarraibide egokiak emango zaizkio idatziz. Ez da prestazioaren harrera egingo kontratistak jarraibide horiek betetzen dituen arte, eta betetzen ditunean dagokion akta egingo da. Jarraibideak arrazoirik gabe ez betetzea ebazpena egiteko arrazoia izango da, legez bidezkoak diren ondorioekin.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo okerren ondorioz, kontratazio-organoak prestazio horri uko egin ahal izango dio, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da edo, hala dagokionean, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

36. klausula. Kontratuaren likidazioa.

Kontratuari harrera egiten zaion egunetik hasita, administrazioa kontratuaren likidazioa adostu beharko du eta kontratistari jakinarazi beharko dio eta, hala dagokionean, amaierako saldoa ordaindu beharko dio.

37. klausula. Lanen jabetza eta izaera pertsonaleko datuen babesa.

Kontratua exekutatzean egindako dokumentu eta azterketa guztiak Gorlizko Udalaren jabetzakoak izango dira, eta haien kopiak egin, argitaratu edo zabaldu ahal izango ditu, osorik edo partzialki, eta langileen adjudikaziodun egileak ezin izango du ezer egin horren kontra.

Adjudikaziodunak ezin izango ditu erabili edo zabaldu kontratu hau exekutatzean egindako azterketak eta dokumentuak, ez osorik ez partzialki, zuzenean edo laburtuta, kontratazio-organoaren berriazko baimenik izan gabe.

Jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubideak babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea bada kontratuaren helburua, kontratistak administrazio kontratugileari lagako dio.

15/1999 Lege Organikoaren 3. artikulua g) letran zehazten den bezala, kontratista, tratamendu-eragilea den aldetik, derrigortuta dago Lege horretan, bereziki 9., 10. eta 12. artikuluetan, lege hori garatzen duen Erregelamenduan xedatutakoa betetzera (15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa; lege hori garatzen duen Erregelamendua, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak onartua).

38. klausula. Bermearen epea.

Bermearen epea harrera-datatik aurrera hasiko da kontatzen eta **I. eranskinaren 28. atalean** ezarritakoa izango da.

Harrera partzialak baleude, jasotako zatien bermearen epea dagozkien harrera partzialen datetatik aurrera hasiko da kontatzen.

Bermearen epearen barruan egiaztatuko balitz egindako lanetan akatsak edo okerrak daudela, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari akats horiek zuzentzea erreklamatzeko.

Bermearen epea amaitu eta administrazioak ez badu gauzatzen aurreko atalean aipatutako salaketa, kontratista salbuetsita geratuko da egindako prestazioagatiko erantzukizunetik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 310., 311. eta 312. artikuluan ezarritakoa betetzeari utzi gabe.

Kontratistak eskubidea izango du kontratatutako prestazioaren amaierarekin lotuta egiten diren oharren berri izateko, bai eta ohar horien inguruan egin ditzakeen azalpenak ematen uzteko.

39. klausula. Behin betiko bermearen itzultzea eta deuseztapena.

Kontratuaren likidazioa onartu ondoren eta, hala badagokio, **I. eranskinaren 28. atalean** zehazten den bermearen epea igaro ondoren, baldin eta behin betiko bermearen gainean ezarri beharreko erantzukizunik ez badago, bermea itzultzeko edo abala ezeztatzeko akordioa hartuko da, RGCCPM delakoren 24. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

Kontratua amaitzen denetik urtebete igaro eta artean ez bada harrera formalki egin ezta likidaziorik ere egin, eta horren arrazoiak ezin bazezkie kontratistari egotzi, orduan, bermea itzuli edo ezeztatu egingo da, baina horretarako beharrezkoa izango da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 100. artikuluan aipatzen diren erantzukizun-kasuak ez gertatzea. Hori guztiori, Administrazio Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorren 65.3. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Harrera partzialak ezarri balira, bermearen ezeztatze partzialei dagokionez **I. eranskinaren 17. atalean** adierazitakoa beteko da.

40. klausula. Kontratua ezeztatzea.

Kontratua eteteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 85., 223. eta 308. artikuluetan jasotzen direnak, bai eta beste hauek ere:

- Administrazioarekin kontratatzeako baldintzak ezustean galtzea.
- Azpikontratazioari dagokionez ezarritako murriztapenak ez betetzea, hala badagokio, 23. klausulan ezarritakoaren arabera, jar daitezkeen zehapenen kalterik gabe.
- Administrazioak zuzentzeko eta ikuskatzeko dituen eskumenak oztopatzea.
- Kontratatik ez betetzea, publiko edo nabarmenak izan gabe, kontratuaren helburuarekin lotuta egonik kontratua gauzatzen den artean ezagutzen dituen datu edo aurrekarietako (I. **eranskinetako 25. atalean** jasotzen direnak) konfidentzialtasuna errespetatzeko betebeharra.
- Kontratatik ez betetzea laneko arriskuen prebentzioaren arloan dituen betebeharrak.
- Kontratatik ez betetzea Gorlizko Udalaren berariazko baimen idatzirik gabe zerbitzura langileak ez atxikitzeiko betebeharra, langilea atxikitzea bera subrogatu beharra dakarrenean berekin.

Ofiziozko kontratazio organoak erabakiko du kontratua ezeztatzea edo, hala badagokio, kontratatik Administrazio Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorraren 109. artikuluan arautzen den prozedura izapidetu bidez.

Ezeztatzea kontratatik egotz dakioken ez betetze baten ondorio bada, eragindako kalte eta galeran ondoriozko kalte-ordaina ordaindu beharko dio Administrazioari. Kalte-ordaina bermearen gainean gauzatuko da; horrek ez du aldatuko bahitutako bermearen gainetik geratzen den kopuruarekiko kontratatik duen erantzukizuna.

Eteteko arrazoiak aplikatzeko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 224. artikuluan eta Administrazio Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorraren 110. artikuluan xedatutakoa hartuko da aintzakotzat, eta horren ondorioetarako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 225. eta 309. artikuluetan xedatutakoa.

41. klausula. Administrazioaren eskumenak, erabakien berrikusketa eta eskumeneko auzitegiak.

Plegu honen lehen klausulan ezarritakoaren arabera, kontratua hau administratiboa da. Kontratazio-organoak eskumena du kontratua indarrean den bitartean haren gaineko interpretazio, aldaketa, ondorio eta iraungitzei buruz sortzen diren gorabeherak ebazteko, betiere, mugen barruan eta legean adierazitako baldintzak betez.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratua araudi harmonizatuari lotuta badago (egoera hori **I. eranskinaren 4. atalean** adierazten da) edo 17—27. bitarteko kategorietako zerbitzuak badira, araudi harmonizatuari lotutako kontratuentzat ezarritako zenbateko bera edo zenbateko handiagoa dutenak, kontratazio arloko errekurso berezia jaso ahal izango dute, besteak beste lizitazio-iragarkiak, kontratazioa arautzeko

baldintzak ezartzen dituzten pleguak eta kontratuzko dokumentuak, adjudikazioa eta adjudikazioaren inguruan zuzenean edo zeharka erabakigarriak diren, prozedurarekin jarraitzea ezinezkoa dela erakusten duten edo legezko eskubideak edo interesak ez babestea edo kalte konponezina sortzea eragiten duten kontratazio-prozedurako izapide-egintzak. Xede horietarako, izapide-egintzat hartuko dira lizitatzailerak Kontratazio Mahaitik botatzeko akordioak. Kontratazio arloko errekurso berezia hautazkoa da. Kontratazio-organoaren edo ebazpena egiteko organo eskudunaren erregistroan idatziz aurkeztu ahal izango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 44. artikuluan xedatutakoari jarraiki zenbatutako hamabost egun balioduneko epean, kontratazio-organoak idatziz iragarki bat jarri ondoren. Emandako ebazpena zuzenean betearazlea izango da, eta administrazioarekiko auzi errekurso bat aurkezteko aukera geratuko da soilik.

Errekurso berezia jarri ezin zaien kontratazio-organoaren egintzak eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 40. artikuluan aintzat hartu gabeko kontratuetan egiten direnak betearazleak izango dira berehala, eta administrazio-bidea amaituko dute. Ebazpen horien aurka berraztertzeko errekurso bat jartzeko aukera izango da hilabete bateko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo zuzenean kontra egin ahal izango zaio administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean.

42. klausula. Kontratataren betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.

Kontratista derrigortuta dago lan, gizarte-segurtasun, ezinduen gizarteratze eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia betetzera, 31/1995 Legean, 171/2004 Errege Dekretuan, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan eta gainerako indarreko araudian xedatzen denaren arabera (31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa; 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, laneko arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez; Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartua).

Plegu honen II. eranskinean ageri den ekonomia-proposamenaren eredian berariaz adieraziko da kontuan hartu direla eskaintzetan betebeharrak horiek.

Hori dela eta, enpresa adjudikaziodunak dokumentazio hau aurkeztuko dio GORLIZKO UDALARI HIRU HILABETEKO gehieneko epean, kontratua formalizatzen denetik hasita:

- GORLIZKO UDALARENTZAT lan egin duten **langileen zerrenda**. Langile bakoitzaren NAN, izena eta abizenak eta kalifikazio profesionala adierazi beharko da. Horrez gainera, zerrenda horretan kontratatutako enpresako prebentzio-arloko arduradun bat egotea derrigorrezkoa izango da (**prebentzio-errekurtoa eta haren prestakuntza** prebentzioaren arloan, 54/03 Legearen arabera errekurtoa aurkeztuta).
- Banakako Babes Ekipoak jaso izanaren ziurtagiria, eta ekipo horiek erabiltzen dituztela ziurtatzekoa.
- Kanpoko prebentzio-zerbitzuarekin **indarrean dagoen kontratua**, edo bertako prebentzio-zerbitzua eratu dela egiaztatzen duten dokumentuak, bai eta Lan Agintaritzak egindako indarrean dagoen akreditazioaren kopia.
- Kanpoko prebentzio-zerbitzuak egindako **ziurtagiria**. Ziurtagiri horretan adierazi behar du GORLIZKO UDALAN lan egingo duten lanpostuen arriskuaren ebaluazioa egin dela, bai eta aginduzko prebentzio-plana egin dela ere.
- Langileen **gaitasun-egoeraren** azterketaren kopia, **Osasun Zaintzaren** bidez egindakoa.

- Zerbitzuan erabili beharreko **makinariaren eta ekipoen zerrenda**. Zerrenda horren **adostasun-adierazpena** ere atxiki beharko da.

- **Ibilgailuen zerrenda**, agiriak behar bezala dituztenak.

- Laneko eta zerbitzuko berariazko arriskuei eta prebentzio-neurriei buruzko prebentzio arloko **prestatuntzaren** ziurtagiriak, bai eta GORLIZKO UDALEAN lan egingo duten langileek emandako **arriskuen informazioaren** kopia ere.

- **Erantzukizun zibileko poliza** eta ordainketaren egoera. Lehen zerrendatutako dokumentazioa eguneratu egin beharko da, aldaketak jasaten baditu edo, hala badagokio, beste kontratuzko harreman bati ekiten bazaio, kontratazio-organoak baimena eman ondoren.

31/95 Legearen 42. artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresariak ez baditu betetzeko laneko arriskuen prebentzioko arloan dituen betebeharrak, administrazio-erantzukizunei egin beharko die aurre, bai eta erantzukizun penalei eta zibilei ere, ez betetze horrek eragin ditzakeen kalte eta galerengatik (31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioei buruzkoa).

Era berean, kontratistak ez baditu laneko arriskuen prebentzioari buruzko klausula honetan aurreikusitako xedapenak betetzen, kontratua ezeztatzeko kausa bat izango da, plegu honen 41. klausulan adierazitakoaren arabera.

GORLIZ UDALERRIKO HIRI-ANTOLAMENDU PLAN NAGUSIAREN BIDEZ, UDAL HIRIGINTZA PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOAK BERRIKUSTEKO UDAL IDAZKETA ETA AHOLKULARITZA-LANAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

1. BALDINTZA-PLUGU HONEN HELMENA

Baldintza-plegu honetan, Gorliz udalerrian egun indarrean dagoen hiri-antolamenduko plan nagusiaren bidez, udal hirigintza-planeamenduko arau subsidiarioak berrikusteko lanen idazketa-prozesuan kontuan hartu beharreko fase guztiak ezartzen dira.

Lan-faseen ezarpena fase horietako bakoitzaren berezko dokumentuetako eduki materialaren bidez osatzen da, eta gainera, lan-fase horiek egitean eta adierazten da zer epe errespetatu behar diren herritarren eta Gorliz udalerriko hiri-antolamenduan interesa duten erakundeen eztabaida publikoan eta parte-hartzailean erakusgai jartzean.

Hirigintza-legediak eta ingurumen-legediak ezarritako betekizunak kontuan hartuz ezartzen dira faseak eta fase horiek dokumentu-edukia, egingo den plan nagusiaren edukiak legedi horietan ezarritako guztia errespetatu dezan.

Era berean, udal Korporazioa osatzen duten taldeei eta xede horretarako eratuko den Plangintzako Aholku Kontseiluari aholkatzeko eta informatzeko prozesua ezartzen da plegu honetan. Lan hori idazketa-taldeak egin behar du lehen adierazitako lanak egiteko prozesu osoan zehar.

Planeko dokumentu guztiak, bai eta planaren fase guztiak ere, euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Halaber, Udalak erabakitzen duen euskarri informatikoan kopia bat emango da, fase bakoitzarena, printzipioz (doc, dwg eta pdf).

Herritarrei faseetako bakoitza ondo ulertzen laguntzeko, herritarrek parte hartzeko bilkurak egingo dira. Bilkura horietan, aurkeztu beharreko dokumentazio osoa idazketa-taldearen ardurapean egongo da.

2. GORLIZKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN NAGUSIAREN DOKUMENTU-EDUKIA.

Edukia

Plan Nagusiaren oinarrizko edukia 2/2006 Legearen 61. artikuluan ezarritakora egokituko da, eta baldintza teknikoen plegu honetan edo aurrekoa ordezkatzeko duen beste edozeinetan garatuko diren ñabardurak eta zehazpenak izango ditu (2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa).

Legediak ezarritako hiri-antolamendurako plan nagusiaren berezko hiri-antolamenduko edukiaz gain, plan nagusiaren idazketa-lanak egitean, ondoko faseetan, non ingurumen-legediak ingurumenaren gaineko inpaktuaren baterako adierazpena egiteko prozesu osoa egituratzen duen, egin beharreko dokumentu guztiak ere egin behar dira.

Euskadiko ingurumen-legediak askotariko terminologia erabiltzen duenez eta 9/2006 Estatuko Legean (plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioen ebaluazioari buruzkoa) ere askotariko terminologia dagoenez, eta nahasmendurik ez sortzeko, Eusko Jaurlaritzaren 183/2003 Dekretuan ezarritako terminologia erabiltzea erabaki da (182/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren prozedura arautzen duena).

Plan Nagusiaren berrikusketa egiteko ezartzen diren faseetako bakoitzaren deskribapenari dagozkion ataletan zehaztuko da faseetako dokumentuen edukia eta helmena, 2/2006 Legearen 62. artikuluan, "Dokumentazioa" izenekoan, eta egingo den aipatu Legearen Erregelamenduen dagozkion artikuluetan ezarritakoa errespetatuz. Lanen adjudikaziodunaren betebeharra izango da plegu honen edukia betetzea eta, hala badagokio, 2/2006 Legearen egingo den Erregelamenduan xede horretarako ezarritakoa betetzea (2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa). Halaber, kontuan izango dira hauek ere: 105/2003 Dekretua, ekainaren 3koa, ekainaren 30ekoa 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, garatzeko presazko neurriena; eta 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

Ingurumenaren gaineko inpaktuaren baterako ebaluazio-azterketaren edukia Euskal Autonomia Erkidegoko legedian ezarritakora egokituko da. Halaber, 9/2006 Estatuko Legearen lehen eranskinean ezarritako guztia ere beteko du.

Horrez gainera, kontuan hartuko du Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko Dekretuan, 2012ko otsailaren 10ekoan, ezarritakoa, udalerriko zarata-mapa barne.

Garapena

Sarrera

Plan nagusiko lanen idazketarako ezarritako faseen ondoko azpiataletan, faseak osatzen

dituzten dokumentu bakoitzerako kontzeptualki eta gutxienez zer dokumentu-eduki ezartzen den adierazten da.

Plegu honetan, plan nagusia idazteko **lehiaketara aurkezten direnentsat betebeharrak** hau ezartzen da: **faseetako bakoitzaren dokumentu-edukia** zehazki garatuko duen dokumentu bat egitea, besteak beste, eta plan nagusiaren zehaztapenen definizio eta zehazte egoki bat egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten zehaztapen grafiko eta idatzi guztiak argi eta zehazki azalduz.

Halaber, dokumentu horrek plan nagusiaren dokumentazioa egiteko prozesu osoaren **memoria-idatzi metodologiko** bat jaso behar du, hiri-antolamenduko berezko zehaztapenak zehazki lotuz antolamendua egiteko eta ingurumena babesteko berezko zehaztapenekin.

Garatu beharreko dokumentazioa

Lehen adierazitakoarekin bat, Gorlizko plan nagusiko lanen adjudikaziorako lehiaketara aurkezten diren taldeek ondoko faseetako dokumentu-edukia garatu beharko dute:

- 1. fasea:** Lurraldeko antolamendu-planen eta plan sektorialen azterketa eta egingo den plan nagusian zer eragin izango duten, eta ingurumen-eraginak.
- 2. fasea:** Gorlizko udalerriko etxebizitzaren erabileraren azterketa (ohiko etxebizitza, bigarren etxebizitza, hutsa).
- 3. fasea:** Ingurumenaren gaineko eraginaren azterketako informazioaren zabalatasunari eta zehaztasun-mailari buruzko kontsulta egiteko dokumentazioa.
- 4. fasea:** Plangintzaren aurrerapena egitea, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa barne hartuta.
- 5. fasea:** Aurrerapenaren edukiari buruzko herritarren parte-hartzea, eta plan nagusia egiteko irizpideak eta helburuak hartzea.
- 6. fasea:** Plan nagusia egitea.
- 7. fasea:** Administrazio-izapidetzea eta herritarren parte-hartzea Plan Nagusiaren edukiari buruz.
- 8. fasea:** Herritarren parte-hartzearen laburpena, eta plan nagusiaren hasierako onespeneri aurkeztutako alegazioei emandako erantzunak.
- 9. fasea:** Behin-behineko onespeneraren fasea.
- 10. fasea:** Behin betiko onespenera.

Adierazitako dokumentu-garapenak faseak egiteko zer metodologia erabili den jaso beharko du, eta bereziki, hirigintza- eta ingurumen-dokumentazioaren erlazio-metodologia.

3. LANAK IDAZTEKO, ETA HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZEDURA ETA GORLIZKO PLAN NAGUSIAREN BERRIKUSKETA IZAPIDETZEKO PROZEDURA EZARTZEKO FASEAK.

Atal honetan, kontuan izanda plan nagusi bat berrikusteak berekin dakarrela prozedura koordinatu bat abian jartzea, bere dokumentu-zehaztapenaren faseetako berezko lanen idazketaren, eta herritarren parte-hartzea eta udal korporazioaren erabakiak hartzea aldi berean tratatzearen artekoa, ondoren ezarriko diren faseek lehen adierazitako alderdi guztiak batera deskribatzen dituzte. Horrez gainera, prozesuaren garapen koordinatua eta jarraitua garatu ahal izateko zehazki zenbat denbora beharko den zehazten da, plan nagusia idazten hasten denetik behin betiko onartzen den arte.

Kontuan izanda Gorliz udalerriko lurralde- eta hiri-errealitatearen analisiaren aurreko faseetako berezko lanak egin daitezkeela, ondoren ezartzen den faseen egituraketa ez dago irizpide sekuentzial zorrotz baten bidez soilik egituratuta, baizik eta hainbat fase, batez ere prozesuaren hasieran, denboran zehar elkarren artean gainjarri ahal izango dira.

Horren ondorioz, fase kontzeptuak denbora-segida bat baino zerbait gehiago da, eta zenbait egitekoren zehaztapenarekin konbinatzen da, fase bakoitzaren eduki materialaren arabera.

1. FASEA. Lurraldeko antolamendu-planen eta plan sektorialen azterketa eta plan nagusian zer eragin izango duten, eta ingurumen-eraginak.

Lurralde-plangintzaren analisia

Fase honetan, Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren analisi zehatza egingo da. Halaber, behin betiko onartu diren zenbait Lurralde Plan Sektorialen analisia egingo da, eta idazketa- eta izapidetze-prozesuan dauden, eta udalerriko lurraldeari zuzenean eragiten dioten edo, hala badagokio, udalerria baino eremu handiagoan eragina duten lurralde-eraginak izateagatik zeharka eragiten duten Lurralde Plan Sektorialak ere aztertuko dira.

Lehen aipatutako Lurralde Planen analisia egiteaz gain, Lurralde Plan Sektorialek eragindako ondorioak azpimarratuko dira, Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partziala gehiago zehazten baitute.

Lurralde-plangintzaren zehaztapenen edukiaren analisia zehazteko, plan bakoitzak Gorlizko etorkizuneko hiri-antolamendurako ezartzen dituen eraginen eta loturen inguruko txosten bat egingo da, udalerrian zenbait jardura edo lurzoruen erabilera ezartzearekin lotutako eragin kuantitatiboak eta kualitatiboak aintzat hartu. Horrez gainera, eragin horiek kokapena berariaz zehaztuta dagoenean, kokapen espazial hori grafikoki adieraziko da oinarri kartografiko bakar batean eta UTM koordinatuetan. Oinarri kartografiko hori idazketa-taldeak egin beharko du Foru Aldundiaren 1/5.000 eta 1/500 eskalako kartografia ofizialaren ekarpenaz, eta udalaren hiri-lurzoruen eta lurzoru urbanizagarri izango den eta, hala badagokio, landa-guneen 1/500 eskalako kartografia ofizialaz osatuta.

Lurralde Planen eta hiri-antolamenduko plan nagusiarekin dituzten loturen analisi-lanen laburpen gisa Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialari buruzko txosten bat egingo da eta Gorliz udalerriari eragiten dioten indarreko Lurralde Plan Partzialetako bakoitzari eta egiteko prozesuan daudenei buruzko txosten bat.

Lurralde Plan Partzialari buruzko txostenak plan horren lurralde-loturen eta hiri-garapenaren, etxebizitzaren nahiz jarduera ekonomienaren, kuantifikazioaren analisi zehatza jaso beharko du, eta plan nagusiarekiko ezartzen duen maniobra-marjinara interpretatzeko irizpideak ezarri beharko ditu, egingo den hiri-garapenaren garrantzia eta ezaugarriak zehazteko.

Txosten sektorialek hiri-antolamendua ezartzeko gaitasunari buruzko lotura berezien analisi jakin bat jaso beharko dute, grafikoki eta argi eta garbi ulertzeko moduan. Analisi grafiko hori idatzizko txosten baten bidez osatuko da, eta idatzizko txosten horretan Plan Sektorialen (errepideen plan nagusia eta abar) lurralde-loturek zer derrigorrezko araudi-helmen edo helmen orientagarri duten azalduko da, bai behin betiko onartutako planena, bai egiten ari diren planena ere.

Egingo den hiri-antolamenduak kontuan izan beharreko ingurumen-loturen analisisa.

Indarrean dagoen lurralde-antolamenduan analisi-lanak egiten diren bitartean, lan horiekin koordinatuta, ingurumenaren babesa errespetatzeko lurralde-lotura guztien analisi grafikoa eta idatzizko analisisa egingo da. Lotura horiek plan nagusiaren dokumentu-eragina izan behar dute eta ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketan kontuan hartuko dira.

Xede horietarako egingo dira Lurralde Antolamenduko Arauetako edukiari jarraiki ezarri diren babes bereziko eremuak eta Europako Ingurumen Zuzentarauek eta xede horretarako eta haiek garatzeko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ezartzen dituen irizpideek babestu beharreko espazio bereziak hautemateko beharrezko informatzeko lanak.

Aurrekoa osatzeko, lurraldean eragina duten legedia sektorialek ezarritako lotura bereziak analizatu eta zehaztuko dira, behin betiko onartuta dagoen lurralde-plangintzaren loturekiko zer erlazio duten zehaztuta garatzeko moduan, Lurralde Antolamenduko Arauekin, Ibaien eta Errekastoen Ertzak Antolatze Lurralde Plan Sektorialarekin, Itsasertza Antolatze Lurralde Planarekin, Eremu Hezeen Lurralde Plan Sektorialarekin eta aipatu legeek zuzenean ezartzen dituzten lurralde-loturak zehazkiago finkatzen dituen beste edozein planekin (esate baterako, gau egun egiten ari diren Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala) gertatzen den bezala.

Lurralde- eta ingurumen-loturen laburpen-dokumentua

Aurreko bi azpiataletan adierazitakoari jarraiki egin beharreko analisisien ondorio eta laburpen gisa, beste dokumentu bat egingo da, deskribapenak eta azalpenak emango dituen: Udal plan nagusiaren berezko antolamendu-zehaztapenak ezartzeko aukerak eta maniobra-eremuak zein diren

azaldu eta deskribatuko du, Udal Korporazioak eta gizarte-eragile eta herritar interesdun guztiek jakin ditzaten.

Hala, pixkanaka-pixkanaka plan nagusia egiteko prozesuan ziurtasunez aurrera egiten lagunduko duten zehaztapen metodologikoko oinarriak finkatu nahi dira, adostutako eta onartutako irizpideak ezarriz, ondoko faseetako dokumentazioa idaztean segurtasunez aurrera egin ahal izateko.

2. FASEA. Gorlizko udalerriko etxebizitzaren erabileraren azterketa

Edukia

Gorlizko Udalak emandako obra-baimen guztien analisi sistematikoa egingo da Arau Subsidiarioen garapen gisa. Obra-baimen horiek etxebizitza-erabilera duten oin berriko eraikinei buruzkoak izan behar dute, eta eraikin bakoitzak erregimen duen, non kokatuta dagoen eta espedienteak udal agiritegian non dagoen zehaztu beharko da.

Lehen aipatutako analisisia eta aipatu epean izandako etxebizitza-garapenari buruzko txostena egiteko oinarritzko informazioa Udal Zerbitzu Teknikoek emango diote idazketa-taldeari. Zerrenda baten bidez emango diote informazio hori guztia, non baimenaren data, etxebizitza kopurua, zer lursaili eragin dion eta dagokion obra berriaren adierazpena, adierazpen hori duten kasuetan, zehaztuko dira. Halaber, idazketa-taldeari udal agiritegira sartzen utziko zaio.

Era berean, udalerrian zer etxebizitza-behar dauden aztertuko du idazketa-taldeak, eta horretarako, etxebizitzari, errentari eta enpleguari buruzko datuak ustiatuko ditu batez ere. Udalerrian zenbat etxebizitza huts dauden eta zenbat bigarren etxebizitza dauden ere arretaz zenbatuko du.

Etxebizitzaren erabilerari buruzko analisi-txosten horren osagarri gisa, haren emaitzak alderatu egingo dira Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialak xede horretarako adierazitakoarekin, eta arreta berezia jarriko zaio proposatutako etxebizitza-kuantifikazioari.

Udal Zerbitzuek erabilgarri dauden udal errolda guztien datuak emango dituzte, bai eta Jarduera Ekonomikoen sailkapenari jarraiki antolatutako jarduera-baimen guztien datuak ere.

3. FASEA. Ingurumenaren gaineko eraginaren azterketako informazioaren zabaltasunari eta zehaztasun-mailari buruzko kontsulta egiteko dokumentazioa.

Edukia

Fase honetan, 211/2012 Dekretuaren 8. artikuluan jasotzen den edukia duen dokumentu bat egingo da (211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena).

Dokumentu horren izena “**Aurretiko aurrerapena**” izango da, eta **ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren** prozedura abian jartzeko erabiliko da. Dokumentu hori ingurumenaren arloan eskumena duen organoari aurkeztuko zaio, 2 hilabeteko epean Erreferentziazko Txostena egin dezan. Txosten horretan ingurumen-jasangarritasuneko txostenaren zabaltasuna eta xehetasun-maila zehaztuko dira.

Era berean, dokumentu hori euskarri gisa erabiliko da Udal Korporazioak herritarren partaidetzarako lehen jardunaldi batzuetan antolatu beharko duen aurretiko partaidetza publikorako. Udal Plangintzako Aholku Kontseiluaren irizpean jarriko da dokumentu hori, idazketa-taldeak proposatu eta Gorlizko Udaleko organo eskudunak onartu beharko duen herritarren partaidetza-programan ezarritako antolaketa-eskemaren baita.

Kontsultaren edo aurretiko aurrerapenaren edukia egiteko eta ondoko herritarren partaidetza-prozesua egiteko epeak

Bost (5) hilabeteko epea ezartzen da, lanak hasten diren datatik zenbatzen hasita, kontsultaren edo **Aurretiko aurrerapenaren** dokumentu-edukia emateko.

Aurretiko aurrerapenaren dokumentazioa eman eta gero, **bi hilabeteko (2)** epea ezarriko da, herritarren partaidetza-prozesua garatzeko, baita jendaurreko jardunaldiak edo bilkurak ere, eta bidezkoa balitz, Udal Plangintzako Aholku Kontseiluaren txostena egiteko.

Herritarrek parte hartzeko jardunaldiak amaitu ondoren, idazketa-taldeak, **hilabete bat (1)** baino epe laburragoan, jendaurrean egindako bilkuretan herritarrek emandako iritziei eta Aholku Kontseiluaren txostenean jasotako iritziei buruzko laburpen-txosten bat egingo dute, plan nagusia egiteko prozesua zuzentzeko eskumena duen udaleko hirigintza-organoak haien berri izan dezan eta kontuan har ditzan. Herritarren lehen parte-hartzearen emaitza ikusita, udaleko hirigintza-organoak Aurretiko aurrerapenaren edukiari buruzko iritzia emango du, ahal bada, hamabost egun baino lehen, idazketa-taldearen laburpen-txostena jasoko duen egunetik kontatzen hasita.

4. FASEA. Plangintzaren aurrerapena egitea

Sarrera

Udaleko hirigintza-organoak Aurretiko aurrerapenaren edukiari buruzko txostena egin eta ingurumenaren arloan eskumena duen organoak haren edukiari buruzko informazioa (Erreferentziazko informazioa) ematean amaituko da hirugarren fasea. Orduan, laugarren fase hau hasiko da, Plan Nagusiaren aurrerapena eta Ingurumen-jasangarritasuneko txostena egitean datzana. Bi dokumentu horiek administrazioak Aurretiko aurrerapenaren edukian onartutako oinarriak oinarri hartuta garatuko da.

Aurrerapenaren edukia

Fase hau hastean, Udal Zerbitzu Teknikoek udalerriko oinarri topografikoa emango diote idazketa taldeari, hiri-perimetra izango dena, hiri-lurzorua eta aurreikusitako lurzoru urbanizagarria osatuko duten 1/500 eskalako planoak, eta, hala badagokio, landa-eremuetako esparruak.

Era berean Udal Zerbitzu Teknikoek Arau Subsidiarioen dokumentazio grafikoa emango dute eta garapen-plangintzako dokumentuak, plan partzialak, plan bereziak, xehetasuneko azterketak, birpartzelazioko eta urbanizazioko proiektuak, eskura dauden formatuan.

Halaber, udalerriko ur-hornidurako, euri-uren estolda-sareko eta ur beltzen sareen egungo egoeraren planoak emango dizkio idazketa-taldeari, dituenak behintzat, eta kontroleko elementu linealek eta puntualek zer neurri dituzten eta non dauden adierazita egongo da plano horietan.

Hauek osatuko dute lehen adierazitako informazioa: dokumentazio grafikoa UTM koordenatuetan (dwg formatua) eta Word formatuan dagoen idatzizko dokumentazioa edo garapen-planeamendua osatzen duten idatzizko dokumentuen formatu eskaneatua.

Plangintzaren aurrerapenean Gorlizko udal-barrutiko egiturazko hirigintza-antolamenduaren lehen proposamen bat jasoko da, eta bere dokumentu-edukiak sistematizazio hau izango du:

1. Hiriaren eta lurzoruaren okupazioaren bilakaeraren estrategia.
2. Hautemandako hirigintza-arazo nagusien analisia eta kokapena, eta arazo horiek tratatzeko eta konpontzeko lan-ildo orokorren eta berariazko lan-ildoen deskribapena.
3. Ingurumena babesteko, natura kontserbatzeko, eta paisaia eta natura-elementuak eta elementu artifizialak kontserbatzeko irizpideak.
4. Hiri-mugikortasuna garatzeko ildoak: trafikoa, bide-sarea, bizikletak ibili ahal izateko bideen sarea, oinezkoen ibilbideak.
5. Hornidurak egokitzeko eta dauden defizitak egokitzeko arauak. Hiri-taldea (administratiboa, eskolakoa, osasungintzakoa, kirolakoa, parkeak eta eremu berdeak, etab.)
6. Etxebizitzaren egoerari buruzko diagnostikoa eta arauak: ohiko etxebizitza, bigarren etxebizitza eta etxebizitza hutsa.
7. Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa.
8. Zarata-mapa.
9. Udal-barrutiaren kalifikazio orokorra, udalerri osoa eremutan banatuta. Erabilera publikoko eta erabilera pribatuko eremuak bereiziki dira, eta bietatik, sistema orokorren sareko berezko eremutzat hartzen direnak.
10. Babes bereziko erregimen baten mendean dauden etxebizitza-estandarrak eta zenbatekoak betetzen direla bermatzeko beharrezko zehaztapenak, bai eta zuzkidura-bizitokietarako eta/edo tokiko zuzkiduretarako erreserba posibleak betetzen direla bermatzeko zehaztapenak ere.
11. Lurzoru urbanizagarri sektORIZATU edo, hala badagokio, lurzoru urbanizagarri ez-sektORIZATU eta lurzoru urbanizaezin moten arabera lurzoruaren sailkapena. Halaber, hiri-lurzoru finkatu eta hiri-lurzoru finkatugabearen arteko lehen eta behin-behineko bereizketa egingo da.
12. Kalifikazio globalaren eta lurzoruaren sailkapenaren sintesi-etaulak.
13. Aurreko ataletan ezarritako antolamenduaren edukiaren deskribapen- eta

justifikazio-memoria.

14. Proposamena udalerri mugakideetako hirigintza-araudiarekin bateragarri egitea.
15. Lurzoruaren udal erreserbak mugatzeko egokitasuna, Lurzoruari buruzko legearen 119. artikuluari jarraiki.

Lehen atal grafikoan adierazitako dokumentazioa gutxienez 1/5.000 eta 1/1.000 eskalan aurkeztuko da hiri-eremuetan eta eremu urbanizagarritan.

Bestalde, idazketa-taldeak ingurumen-jasangarritasunako txostena erreferentziazko txostenaren edukiari jarraiki egingo du. Ingurumen-jasangarritasuneko txostenean, planeko helburuak garatzeko aukera ematen duten alternatiba tekniko, ekonomia- eta ingurumen-alternatiba bideragarriak deskribatu eta ebaluatuko dira.

Aurrerapena idazteko epea.

Idazketa-taldeak **lau hilabeteko (4)** epea izango du plangintzaren aurrerapena aurkezteko, aurreko fasea amaitzen denetik hasita, Hau da, udaleko hirigintza-organoak aurretiko aurrerapenaren edukiari buruzko bere iritzia ematen duenean.

5. FASEA. Aurrerapenaren edukiari buruzko herritarren parte-hartzea, eta plan nagusia egiteko irizpideak eta helburuak hartzea.

Jendaurrean erakusgai izateko epea

Idazketa- taldeak aurrerapenaren dokumentua eta ingurumen-jasangarritasuneko txostena udal korporazioari ematean, hirigintza-organo eskudunak aztertu egingo ditu eta, udal zerbitzuetako txostenak jaso ondoren, hala badagokio, jendaurrean erakusgai jarriko du bi hilabeteko epean.

Epe horretan, eta herritarren partaidetza-programan ezarritakoarekin bat, herritarren partaidetza gauzatuko da, dibulgaziozko materialaren eta jendeari Aurrerapenaren edukia, bai eta Aurrerapenean jasotako beste edozein mekanismo ere, azaltzeko bilkura irekien bidez.

Aurrerapena jendaurrean erakusgai izan zenean egindako alegazioei erantzuteko epea eta herritarren partaidetza-prozesuaren analisia

Idazketa-taldeak Aurrerapena jendaurrean erakusgai izan zen aldian aurkeztutako iradokizunei buruzko txosten bat egingo du, bai eta jendeak bilkura irekietan eta Aholku Kontseiluak emandako iritziei buruzko laburpen-txosten bat ere, udaleko hirigintza-organo eskudunak haien berri izan dezan eta aintzat har ditzan, ondoren plan nagusiaren dokumentazioa egitean zer irizpide eta helburu errespetatu behar diren ezartzeko.

Lehen aipatutako txostena egiteko **bi hilabeteko (2)** epea egongo da, aurkeztutako alegazioak jasotzen diren egunetik hasita.

Udalak erabaki bat hartzea, plan nagusia idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak finkatuz

Idazketa-taldearen iradokizunekin, herritarren parte-hartzearekin, udalerri mugakideei egindako kontsultaren emaitzarekin eta ingurumen-jasangarritasuneko txostenarekin lotutako txostenen berri izanda gero, xede horretarako eskumena duen udal organoak erabaki bat hartuko du, plan nagusia idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak ezartzeko, eta idazketa-taldeari erabaki horren berri emango dio.

6. FASEA. Plan nagusia egitea.

Hasiera

Idazketa-taldeak plan nagusiaren dokumentazioa egitean errespetatu beharreko irizpideak eta helburuak jasotzen dituen udalaren erabakia jasotzen duenean, Gorlizko hiri-antolamenduko plan nagusia osatuko duen dokumentua egiteko seigarren faseari ekingo zaio.

Plan nagusiaren dokumentazioaren edukia

Plan nagusiaren dokumentazioa xehetasunez bete beharko du lurzorua eta hirigintzari buruzko 2/U2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek xede horretarako ezarritakoa, egiturazko hirigintza-antolamendu xehatuaren edukiaren garapenarekin lotuta, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 53. eta 56. artikuluetan eta egiturazko hirigintza-antolamenduaren edukiaren beste alderdi batzuk ezartzen dituzten gainerako artikuluetan xede horretarako adierazten denaren arabera.

Ondoren, plan nagusiaren dokumentazioak gutxienez zer eduki izan behar duen adieraziko dugu labur-labur. Plan nagusia idazteko lehiaketara aurkeztu diren taldeek egindako eskaintzetan zehaztasun handiagoz osatu eta garatu beharko dute eduki hori.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 62. artikulua lege plan nagusietarako ezarritako edukia sistematizatzeko, dokumentazio grafikoaren eta idatzizko dokumentazioaren banaketa klasikoa eginez, aipatu artikuluan jasotako dokumentuek zer eduki duten azalduko dugu.

Antolamenduaren berri emateko eta arrazoitzeko memoria-idatzia.

Dokumentu hori atal hauetan egituratuta dago:

- Hirigintzari buruzko informazioaren laburpena. Laburpen horretan, azpimarratu behar da zein diren plangintzaren ahalmena betetzea nabarmen baldintzatzen duten elementuak eta aurreexistentziak, eta horren ondorioz, proposatutako hirigintza-antolamenduaren edukia.
- Aurretiko aurrerapenaren eta Aurrerapenaren faseetan egindako eta aurkeztutako antolamendu-proposamenen justifikazioa, bakoitzean proposatutako alternatibei buruzko azalpena emanez.
- Alternatibak egitean eta hautatzean egindako prozesuaren deskribapena. Kontuan izango da herritarren parte-hartzea, eta irizpideak eta helburuak erabakitzeke aintzat hartutako planteamenduak.
- Aurretiko aurrerapenaren eta Aurrerapenaren herritarren partaidetza-prozesuan aurkeztutako alegazioen eta iradokizunen edukiari buruzko laburpena, eta alegazio eta iradokizun horiek onartu edo baztertzeari buruzko edukiaren azalpena, bai idazketa-taldearena bai xede horretarako eskumena duen udaleko hirigintza-organoarena.

Ingurumen-jasangarritasuneko txostena bete dela justifikatzeko memoria-idatzia

Ingurumen-jasangarritasuneko txosten horren edukiari zehaztasunez jarraituz egituratuko da memoria-idatzi hori. Horrez gainera, zehaztu eta argitu egingo du txosten horretako zer alderdik duten lotura zuzena eta zehatza plan nagusiaren araudi juridikoaren edukiarekin, plan nagusiaren hirigintza-dokumentazioan zergatik aintzat hartu den justifikatuz.

Ingurumenaren gainerako eraginaren jasangarritasun-txostenean jasotako gainerako zehaztapenei dagokionez, memoria-idatzi honetan zehaztasunez esplizitatuko dira soilik, eta haren edukia bidaliko da ingurumenaren gaineko eraginaren behin betiko txostenean (Ingurumen-memoria) aintzat har dadin, xede horretarako ingurumenaren arloko hirigintza-organoak ingurumenaren gaineko eraginaren txostena egitean (Ingurumen-memoria) ezarritakoari kalterik egin gabe.

Informazio-planoak

Informazio-planoetan Udal Korporazioak behin betiko onartutako azken aldaketaren arabera eguneratutako Arau Subsidiarioei buruzko dokumentazioa jasoko da, indarrean dagoen lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen kontzeptuzko sistematikari jarraiki, egiturazko antolamendu xehatuaren berezko alderdiak jasoz eta azalduz.

Plan nagusiko kudeaketa-planoek indarrean dauden Arau Subsidiarioek ezarritako hirigintza-exekuzioaren kudeaketarako esparruei eutsiko diete, egindako banakuntza-eremuen ezarketa

mantenduz, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen seigarren xedapen iragankorraren azken atalean ezarritakoaren arabera. Horrez gainera, Arau Subsidiarioen garapenean mugatutako zenbait egikaritze-unitate ere kokatuko dira.

Egiturazko antolamenduko planoak

Eremu publiko eta eremu pribatu guztiak zehaztuko dituzte egiturazko antolamenduko planoek, udal-barruti osoa barne hartuz, eta eremu horien artean bereizketa egingo dute, lurzoruaren titulartasunari eta baimendutako jardueri buruzko gainjarritako bi irizpideri erreparatuz.

Era berean, egiturazko antolamenduko planoetan finkatuko da sistema orokorreko sareko zenbait eremu egikaritze-esparruei atxikitzea edo esparru horietan sartzea, eskuratzeko eta, hala badagokio, egiteko eta sartu edo atxiki diren esparruetako hirigintza-eraikigarritasuneko titularrek kostua beren gain hartzeko.

Halaber, egiturazko antolamenduko planoetan jasoko da hiru lurzoru motetako bakoitzean sartutako lursailen definizio grafikoa. Lurzoru urbanizagarrian lurzoru sektorizatua eta lurzoru sektorizatu gabea kategoriak bereiziko dira. Era berean, lurzoru mota horretan zer sektore antolatzen diren adieraziko da, hala badagokio, plan nagusiko dokumentazioaren bidez, eta zein atzeratuko diren plan partzial baten antolamendu xehatuan egiteko.

Hiri-lurzorua, eta hiri-lurzoru finkatuaren eta finkatu gabearen kategorien zehaztapena, antolamendu xehatuko planoetan ezarriko da, antolamendu xehatua plan berezi baten idazketara igorriko duten hiri-lurzoruko eremuak adierazteari utzi gabe.

Antolamendu xehatuko planoak

Antolamendu xehatuko planoan lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 56. artikuluan ezarritako zehaztapen guztiak jasoko dira, eta horrez gainera, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen beste artikulua batzuetan sakabanatuta ezarrita dauden antolamendu xehatuari buruzko beste zehaztapen guztiak ere jasoko dira.

Antolamendu xehatu hori egiturazko antolamenduak plan berezi batean antolatu ez dituen hiri-lurzoruko eremu guztietan aplikatuko da, eta era berean, antolamendu xehatu hori lurzoru urbanizagarriko sektoreetako lursailetan aplikatuko da, baldin eta lurzoru urbanizagarri horien antolamendua plan nagusiaren dokumentazioaren bidez egin behar bada egiturazko antolamenduaren arabera.

Antolamendu xehatuko planoen baitan, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 56., 137., 139. eta 140. artikuluan ezarritako egikaritze-esparru guztien mugatzea jasoko da.

Hirigintza-arauak

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritakoa eta bere unean lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzeko Erregelamendu orokorrak definitutakoa bete ezean,

hirigintzako araudiak ezarri beharko ditu plan nagusiaren aplikazioari buruzko xedapen orokorrak, bere edukiaren oinarritzko eta lehen mailako eduki gisa.

Horrez gainera, beste zehaztapen hauek ere ezarri beharko ditu:

- Lurzoruaren hirigintza-kalifikazioaren arreta, hirigintza-erabilerei, eraikigarritasun fisiko eta urbanistikoari, eta egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren alderditan banatutako hirigintza-kalifikazioaren erregulazioari eta sistematizazioari erreparatuz batez ere.
- Hirigintza-antolamenduari eta bere zehaztapen-erregimenari gainjarritako baldintzak.
- Plangintzaren araubide juridikoa eta egikaritze-araubidea, lurzoruaren sailkapenari, hirigintza-antolamenduaren egikaritze juridikoko araubideari, eraikigarritasunen esleipenei, eta hirigintzako eta eraikuntzako egikaritze-araubideari.
- Eraikinen erregimena eta partzela eraikigarrien erabilera, eraikuntzaren baldintza orokorrak ezarriz eta hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian baliabideak ezarriz, bai eta lurzoru urbanizaezinean ere.
- Lurzoru urbanizaezineko eremuetan berariaz aplikatzeko hirigintza-arauak, ingurumena, paisaia eta natura babesteko alderdi garrantzitsuenei erreparatuz.
- Kultura-ondarea babesteko arauak.
- Arau iragankorrak.
- Plangintza-ereduak berariaz baztertuko du ez-ohiko gasa edo lurzoruan pizarra bilatzeko udalerriko lurraldean azterketa geofisikoak egitea, haustura hidraulikoaren (fracking) teknikaren bidez, osasunarentzat eta ingurumenarentzat ondorio negatiboak baititu.
- Kontuan hartzea beharrezkotzat jotzen den beste edozein arau.

Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzeko Erregelamenduak ezartzen duenari kalterik egin gabe, ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa behar adina zehaztasunez idatzi beharko da, udalak proposatutako hirigintza-antolamendua gauzatzeko duen ahalmena ebaluatzeko eta justifikatzeko.

Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketan aintzat hartutako plan nagusia gauzatzeko epa zortzi urtekoa izango da, plan nagusiaren berrikusketa behin betiko onartzen den egunetik kontatzen hasita.

Bideragarritasunaren azterketak sistema orokor publikoen sarearen elementuak gauzatzeak izango dituen kostuen ekonomia-ebaluazioa jasoko du, zenbait eremuren eta sektoreen exekuzioari atxikitzen ez zaien finantziazioa ez duten elementuena, hain zuzen.

Exekuziorako administrazio eskudunari erreparatutako banatutako ekonomia-ebaluazioa hori honako eskema honi jarraiki egin beharko da:

- Komunikazio-, trenbide-, bide-, oinezko- eta bizikleta-azpiegituretako sistema orokorren zuzkidura-sareko elementuak.
- Eremu libreen eta jabari eta erabilera publikoko eremu berdeen sistema orokorretako zuzkidura-sarearen elementuak.
- Titulartasun publikoko sistema orokorren eta ekipamendu kolektiboen zuzkidura-sareko elementuak, hezkuntza-, kultura-, osasungintza-, laguntza-, kirol- eta administrazio-erabileretarako direnak.
- Txandakako etxebizitzaren ekipamendu komunitarioen zuzkidura-sareko elementuak, aldi baterako ostatua eta ostatu soziala eskaintzeko bereziki premia duten taldeei, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 17. artikuluan ezarritakoari jarraiki.
- Ur- eta energia-hornidura zerbitzuen zuzkidurarekin lotutako esku-hartze bereziki esanguratsuetako zerbitzu orokorren sareko oinarritzako azpiegiturak.
- Ur-ibilguen gainean jarduteko obra publikoak, uholdeak izateko arriskuen arazoak eta ibilguen babesarekin lotutako arazoak konpontzeko helburua dutenak.

Halaber, egiturazko antolamenduak proposatu dituen eremuetako eta sektoreetako urbanizazio-obren kostuak ere aztertuko ditu ekonomia- eta finantza-bideragarritasuneko azterketak, plan nagusiaren egiturazko antolamenduaren zehaztapenak xede horretarako ezarritakoa, bai eta lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak xede horretarako ezarritako xedapenetan jasotako beste zehaztapenak ezarritakoa ere, kontuan hartuz kostu horiek zer osagaik eratzen dituen bereiziz.

Desjabetzeen aurreikuspenak ezarriko dira, Lurzoruari buruzko Legearen 185. artikulua aplikazioak izan ditzakeen ondorioak direla eta.

Bukatzeko, Proposatutako plangintzaren zehaztapenak egikaritzeak zer egingarritasun ekonomiko duen argi adierazten duen txosten bat izango du ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketak, bai Gorlizko Udalaren, gainerako herri-administrazioen, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta, hala badagokio, estatuko gobernuaren ikuspuntutik, eta exekuzioari atxikitako eremuen, sektoreen eta sistema orokorren exekuzioarekin lotutako ekimen pribatuaren ikuspuntutik.

Babestu beharreko elementuen eta ondasunen katalogoa

Elementu babestuen plan berezian ondasunak, artifizialak nahiz naturalak, identifikatzen dira, haien balioari eta interesari erreparatuz babestu behar direnak, hori guztia lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 76. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Aipatu identifikazioaz gain, katalogatutako ondasunetan egin daitezkeen jarduketari buruzko arauak eta loturak ezarri beharko dira, bai eta babestutako ondasunetan eta haien ingurunean koka daitezkeen erabilerei jarri beharreko mugak ere.

Ondasunen zerrenda hainbat kategoriatan sistematizatu behar da, jarraian adierazitakoaren arabera:

1. Udalerriko hirigintza-ondareko ondasunak eta elementuak.
2. Udalerriko arkeologia-ondareko ondasunak eta elementuak.
3. Espazio eta elementu naturalak.

Zatiketa hori osatzeko, behar bezala zehaztu beharko da zein ondasunek duten udalaz gaindiko interesa, Eusko Jaurlaritzako Ondarearen Zuzendaritzak, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Legeak ezartzen dutena betez, eta arreta berezia eginez Batasunaren garrantzizko leku, monumentu-multzo, monumentu, zuhaitz berezi eta biotopo babestuei, hala Eusko Jaurlaritzaren organo eskudunak abiarazitakoei, nola halakotzat hartu dituenen.

Udalaz gainera duten ondasunek eta elementuek beren hasiera- eta adierazpen-espedienteetan jasotako jarraibideak errespetatu beharko lituzkete, bai eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ezarritako jarraibideak ere, esleitzen zaien babes-mailaren arabera.

Babestutako gainerako ondasunak eta elementuak tokiko intereseko zerrenda batean sartuko dira. Katalogoan, lehen adierazitako babes-arauak ezarriko dira, plan nagusiaren berezko zehaztapenekin bat.

Edonola ere, katalogoan jasotako ondasunen eta elementuen babesari buruzko zehaztapen guztiak berariaz eta argi eta garbi sartu beharko dira plan nagusiaren hirigintza-arauetako titulu batean. Horrez gainera, plano bat egingo da, non babestutako ondasun eta elementu guztien kokapena eta kategorizazioa berariaz jasoko den.

Hirigintza- eta eraikuntza-ordenantzak

75. artikuluan, "Hirigintza-ordenantzaren udal ordenantza osagarriak" izenekoaren, 2., 3. eta

4. ataletan ezarritako edukiari jarraiki idatziko da hirigintza-ordenantzen udal ordenantza osagarriak osatzen dituen dokumentua.

Dokumentu hori egitean hirigintzari, eraikuntzari eta eraikinei buruzko beste edozein udal ordenantza desagertuko da.

Ordenantzen edukia bi kapitulu nagusitan egituratuko da: hirigintza-ordenantzak eta eraikuntza-ordenantzak. Argi eta garbi ezarri beharko da zer jarduketa-esparru eta hierarkia-maila duten ordenantza horiek lurzoru urbanizagarriko eta hiri-lurzoruko hainbat sektoretako antolamendu xehatuaren hirigintza-arauen zehaztapenekin lotuta.

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa.

Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren dokumentuaren bertsio berri honek Aurrerapenean jasotako hirigintza-antolamenduaren eta hasierako onespina lortzeko idatzi zen plan nagusiaren dokumentuan erabakitako antolamenduaren artean zer aldaketa egon diren jaso beharko du.

Kutsadura akustikoaren azterketa, zarata-mapa.

Aurrerapenerako idatzi zen dokumentua udalerraren garapenerako proposatutako antolamendu-alternatibara egokituko da.

Plan nagusiaren dokumentu-edukia egiteko epea

Zortzi hilabeteko (8) epea ezarri da, idazketa-taldeak udalaren akordioa, plan nagusiaren dokumentazioa egitean zer irizpide eta helburu errespetatu behar diren biltzen duena, jasotzen duenetik hasita, dokumentazio horretako lanak egiteko.

7. FASEA. Administrazio-izapidetzea eta herritarren parte-hartzea Plan Nagusiaren edukiari buruz.

Plan nagusiaren hasierako onespeneren aurretik egin beharreko administrazio-izapidetzea

Gorlizko udal korporazioak plan nagusiaren dokumentazioko lanak, ingurumenaren gainerako azterketa barne, jaso ondoren, hasierako onespina eman baino lehen, estatuko gobernuaren Kostaldeetako Zuzendaritza Nagusira bidaliko du, zuzendaritza horrek dagokion txostena egin dezan, xede horretarako Kostaldee buruzko Legeak ezarritakoaren arabera.

Halaber, 1/2006 Legearen 7. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta hasierako onespina eman baino lehen, Uraren Euskal Agentziari txosten bat eskatuko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorren obren eta udal plangintzako obren erlazioari buruzkoa (1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Eusko Legebiltzarrarena, (Urarena).

2/2006 Legearen 109. artikuluan, "Udal plangintzako aholku kontseilua" izenekoan, ezarritakoari jarraiki, eta plan nagusiari hasierako onespina eman baino lehen, udal plangintzako Aholku Kontseiluak plan nagusiaren dokumentazioaren txosten bat egin beharko du.

Udaleko zerbitzu teknikoek plan nagusiaren dokumentazioaren edukia aztertu eta informatu ondoren, eta lehen adierazitako txostenen eskaera egin zela bi hilabete igaro direnean, plan nagusiari hasierako onespina emango zaio eta jendeari planaren berri emango zaio, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari ofizialean argitaratuz, gutxienez bi hilabetez.

Plan nagusiaren hasierako onespinen ondoren egin beharreko administrazio-izapidetzea

Plan nagusiari hasierako onespina eman ondoren, administrazio sektoriale txostenak eskatu beharko zaizkio, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90. artikuluan, "Plan Orokorra egin eta izapidetzea" izenekoan, ezarritakoak eta 105/2008 Dekretuaren 31. artikuluan, "Urbanizazio-jardunen eragina. Hirigintza-antolamenduko planei buruzko dokumentazioa" izenekoan, ezarritakoak, hain zuzen (105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa).

Plan nagusiko dokumentazioaren izapidetzearekin lotutako herritarren parte-hartzea.

Hasierako onespina onartu eta hurrengo bi hilabeteetan, eta plan nagusia jendearen aurrean erakusgai jartzeko epearekin bat eginez, xede horretako Udal Korporazioak egindako programan ezarritako herritarren parte-hartzea gauzatzeko jarduketak burutzen hasiko dira.

Idazketa-taldeak jendeari plan nagusiaren edukia jendeari azaltzeko lau bilkuretan parte hartu beharko du gutxienez, Udal Korporazioak beharrezkotzat jotzen duen lokaletan eta dibulgaziozko materiala erabiliz.

Jendeari azalpenak emateko bilkura horietan, gutxienez, idazketa-taldeko zuzendariak eta aholkulari juridikoak eta ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketaren arduradunak egon beharko dute, eta plan nagusiaren edukia zehaztasunez azaldu beharko dute. Ondoren, bilkuran parte hartu beharko dute eta jendearen zalantzak argitu beharko dituzte.

Lehen aipatutako jendaurreko bilkura horiez gain, idazketa-taldeak plan nagusiaren dokumentazioa utziko du erakusketa-lokaletan, eta Udal Korporazioak erabakiko dituen sei egunetan, teknikoki prestatuta dauden idazketa-taldeko kideak egongo dira behar, planak eragiten dien herritarrek planteatutako zalantzak in situ argitzeko.

8. FASEA. Herritarren parte-hartzearen laburpena, eta plan nagusiaren hasierako onespinari aurkeztutako alegazioei emandako erantzunak.

Edukia

Plan nagusiari hasierako onespina eman eta jendaurrean erakusteko epea amaitu ondoren, Gorlizko Udal Korporazioak jasotako alegazio guztiak bidaliko dizkio idazketa-taldeari, alegazioen edukiari buruzko txostena egin dezan.

Idazketa-taldeari aurkeztutako alegazioen edukiari buruzko txosten indibidualizatuak egiteaz gain, herritarren partaidetza-prozesuari buruzko txosten txiki bat egingo du, non azalpenak emateko bilkuretan hautemandako gorabehera nagusiak jasoko diren, txosten horiek Udal Korporazioaren irizpean jartzeko.

Alegazioen edukiari erantzuteko epea

Txosten indibidualizatuak eta laburpen-txostenak egiteko epea **bi hilabetekoa (2)** izango da, idazketa-taldeak aurkeztutako alegazioen dokumentazio osoa jasotzen duen egunetik hasita.

9. FASEA. Behin-behineko onespeneren fasea.

Behin-behineko onespina onartzea

Udal Korporazioak administrazio sektorialen txostenak, ingurumen-jasangarritasuneko txostena, Kostaldeetako Zuzendaritza Nagusiaren txostena eta idazketa-taldeak alegazioei emandako erantzuna jasotzen dituenean, behin-behinean onartuko du plan nagusia, beharrezkoak diren aldaketak eginez, beste hasierako onспен bat eman behar izateko erabakia hartzeko aukera baztertu gabe.

Idazketa-taldeak, lehen adierazitako bi aukeretako edozeinetan, idatziko du hasierako onspina eta Udal Korporazioak onartutako aldaketak jasotzen dituen dokumentazioategina, plan nagusia onartzeko prozedurarekin jarraitu ahal izateko.

Behin-behineko onspeneren testuategina egiteko epea

Behin-behineko onspeneren ondoren dokumentazioategina egiteko epea edo, hala badagokio, berriz hasierako onspina emateko epea, **hilabete batekoa (1)** izango da, udalaren erabakia jasotzen den egunetik hasita, lehen aukeran, eta **bi hilabetekoa (2)**, bigarrenean.

10. FASEA. Behin betiko onspina

Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena

Behin-behineko onspina eman eta onспен horren zehaztapenak jasotzen dituen dokumentuategina egin ondoren, Udal Korporazioak hirigintza-espediente osoa bidaliko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari, 2/2006 Legearen 91. artikuluan, "Plan

nagusia behin betiko onartzea" izenekoan, ezarritako txosten loteslea egin dezan.

Ingurumen-memoria

Organo sustatzaileak jasangarritasunari buruzko txostena bidaliko dio ingurumen-organoari, espedientearen ale batekin batera, bi hilabeteko epean dagokion Ingurumen Memoria egin dezan.

Behin betiko onespena emateko erabakia hartzea

Aipatu txostena jaso eta udaleko hirigintza-organo eskudunak txostenaren edukia aztertu ondoren, idazketa-taldeari bidaliko zaio, aipatu txostenak ezarritako baldintzak, baldin eta ezartzen baditu, betetzeko beharrezko jarraibideak emanaz. Bizkaiko Foru Aldundiak plan nagusia onartzeko erabakia hartzeko beharrezko dokumentuategina egin beharko da.

Behin betiko onespeneren testuategina egiteko epea

Lehen adierazitako testuategina egiteko epea **bi hilabetekoa (2)** izango da, haren edukari buruzko udalaren erabakia hartzen den egunetik kontatzen hasita. Dokumentu hori behin betiko onespena emateko erabakia hartu baino lehen edo ondoren egingo da, hirigintzan eskumena duen foru-organoak xede horretarako ezarritakoarekin bat.

4. IDAZKETA-TALDEAREN ERAKETA ETA BETEBEHARRAK.

Idazketa-taldeak gutxienez kide hauek izan beharko ditu:

Arkitekturako titulua duen taldeko zuzendari bat. Hirigintza espezialitatea izan beharko du eta hiri-diseinuari, eraikuntza motei eta hirigintza-plangintza egikaritzeko kudeaketari buruzko jakintza egiaztatuak.

Aholkulari juridiko bat, zuzenbidean lizentziaduna. Lurzoruaren araubide juridikoari, urbanizazioei eta eraikuntzei buruzko jakintza egiaztatuak izan beharko ditu, bai eta hirigintza-plangintza egikaritzeko tresnei buruzkoa ere.

Horrez gainera, taldean obra zibilean eta mugikortasun-azpiegituretan eta hiri-zerbitzuetan espezializatutako goi-mailako teknikari batek egon beharko du, ahal bada bide, ubide eta portuetako ingeniari batek.

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa eta plan nagusiaren antolamenduko ingurumen-alderdien aholkularitza metodologikoa egiteko, goi-mailako unibertsitate-titulua duen kide bat izan beharko du taldeak, ahal bada Biologian edo Nekazaritza edo Basogintza Ingeniaritzan espezializatutako pertsona bat. Halaber, enpresa profesional espezializatu batek ere egin ahal izango du lan hori.

Enpresa edo profesional fidagarriek ziurtatuko dute azken 10 urteetan 3.000 biztanle baino gehiagoko udalerri batean behin-behinean onartutako plan nagusi baten edo arau subsidiarioen berrikusketa edo lehen formulazio batean gutxienez parte hartu izana.

Taldeak koordinatuta dagoela frogatzeko, taldeko zuzendariak idatzi beharko du berrikusketa hori. Taldeko zuzendaria ordezkatu ahal izateko ezinbestekoa izango da Kontratazio-organoak berariazko baimena ematea. Zehaztapen hori betetzen ez bada, kontratua ezeztatze aukera emango da.

Idazketa-taldeko gutxienez bi kidek (bata, teknikaria, eta bestea, kide juridikoa) frogatu beharko dute hirigintzari buruzko jakintzak eta plana egiteko prozesu osoan, herritarren partaidetza-forumetan, Plangintzako Aholku Kontseiluan, herritarrei informazioa emateko bilkuretan eta Udalak xede horretarako deituko dituen batzorde teknikoetan euskaraz adierazteko gaitasuna dituztela.

Eskakizun hori funtsezko betebeharrak bat da, eta betetzen ez bada, ezinezkoa izango da adjudikazioduna izatea.

Eskakizun hori betetzen dela frogatzeko euskarako titulua (EGA, HABE-3 edo antzekoa) eman daiteke edo adierazpen arduratsu bat egin daiteke.

Bigarren kasu horretan, eskaintza onuragarriena hautatu ondoren, eta kontratua esleitu baino

lehen, kontratazio-organoak ebaluazio tekniko bat egingo du aditu batek lagunduta. Aditu horrek egiaztatuko du idazketa-taldeak behar adina hizkuntza-maila duen euskal hiztunekin komunikatzeko.

Eskakizun hori betetzen dela frogatzen ez bada, proposamena baztertu egingo da, fidagarritasun-baldintzarik ez izateagatik. Beraz, hurrengo lizitatzaiaren akreditazio teknikoak kontrolatuko da, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera.

IDAZKETA-TALDEAREN BULEGOA

Idazketa-taldeak Bilbo metropolitarraren eremu funtzionalean bulego bat izan beharko du. Gutxienez lizitatzaiak proposatutako idazketa-taldearen erdia behin betiko kokatu beharko da aipatu eremu funtzionalean.

TALDEKO ZUZENDARIAREN BETEBEHARRAK

Taldeko zuzendariak, plan nagusia egiteko lanen kalitatea ziurtatzeko funtsezko eta oinarrizko elementua denak, idazketa-taldearen bulegoan egon beharko du, udalak eskatzen badu, azkar eta malgutasunez bertaratu ahal izan dadin.

5. PROPOSAMENEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

5.1.-Erabilitako metodologia

Talde lizitatzailleak lanak garatzeko zer metodologia erabiliko duen azaldu beharko du, plangintzaren eta proposatutako hirigintza-jarduketan politikaren bidez lortu nahi diren helburuen arabera.

Horretarako, lanak egiteko plan bat egingo du, hauek jasoko dituen:

- Memoria bat, eta bertan, lanetan erabiliko den metodologiaren azalpena, lizitatzailleak bere gain hartzen duen lan bakoitza argi eta garbi zehaztuta.
- Lanak egiteko egutegi osoa, plegu honetan ezarritako epe partzialekin bateragarria izango dena.
- Atal bakoitzean parte hartu behar duen langile-taldearen deskribapena.
- Berariazko konpromisoa adierazi beharko da lana egiteko, eta adierazpen bat jasoko da, bateraezintasunen araubidea onartzeko. Era horretan, hitz emango dute ez dutela esku hartuko lan partikularretan, ez eta Gorlizko Udala ez diren erakundeek sorrarazitako lanetan ere, betiere eragina badute edo zerikusia izan ahal badute kontratazio honen xede den plangintzako dokumentuak hirigintzako aprobetxamendu berriak onestearekin, pleguaren xede den plangintza idaztean, eta arlo berean, plegua behin betiko onesten denetik bi urte igaro arte, lana esleitzen baldin bazaie.

5.2. Parte hartzeko mekanismoa

Gorlizko Udalak herritarren parte-hartzeari garrantzia handia ematen dionez, lehiakideak hainbat osagarri eskaini ahal izango ditu hedapen- eta komunikazio-alderdiak hobetzeko, hala nola hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, liburuxkak eta herritarrei arreta emateko sistemak, herritarren parte-hartzea gutxieneko legezko alderdiekiko hobetuko dituztenak.

5.3.- Hobekuntzak.

Korporazioaren ustez berritzaileak eta interesgarriak diren proposamenak hartuko dira aintzat, plan nagusi praktiko bat lortzeko, udalerraren benetako beharrei egokitutakoa. Era berean, herriak ulertzeko modu berrien eredu izan beharko du: herri jasangarriak, lurzorua aurrezten dutenak, balioak sustatzen dituztenak, pertsonengan pentsatzen dutenak eta abar.

Adibide gisa, balorazio positiboa jasoko duten zenbait alderdi iradokiko dira, idazketa-taldearen interes- eta konpromiso-mailaren arabera:

- Genero ikuspuntua kontuan hartzen duen hirigintza lortzeko gidalerroak.
- Mugikortasuna eta osasuna hobetuko duten alderdiak.
- Eraikuntza- eta hirigintza-ordenantzak, energia-eraginkortasuneko eta jasangarritasuneko alderdiak aintzat hartzen dituztenak.

- Natura-baliabideen aprobetxamendu jasangarria.
- Ondoko garapen-dokumentuen esku ez uztea udalerriko eremuak.
- Hondartzaren inguruko jarduketak zehaztea.
- Idazketa-taldea udaleko bulegoetara gehiago bertaratzea, informazioa eskuratzeko eta alderatzeko, eta informazioa emateko.
- Problematika honentzat proposamenak: etxebizitza hutsa versus bigarren etxebizitza.

6.- PROPOSAMENAREN FORMATUA:

Dokumentu osoa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzi behar da.

Dokumentazioa normalizatzeko, hauek hartuko dira kontuan:

Formatuak: Erabakigarritzat joko dira, baina, hala ere, berriz aztertu ahal izango dira dokumentua egin bitartean, eta, hala izatekotan, Udalaren baimena eduki beharko da.

Idatzizko dokumentazioa:

- Paperezko euskarria: DIN-A4 formatuko orriak, zenbakituta, liburuetan edo eraztun edo torlojuzko karpeta zenbakituetan azaleztatuta, errotulua azalean eta bizkarrean jarrita. Guztizko gehieneko tamaina: 23 x 32 cm. Orriaren %100ek ez du klororik izango, eta gutxienez birziklatutako papera izango da. Gainera, birziklatu gabeko paperezko zuntzak jasagarriak diren baso-ustiapenetatik jasoko dira.
- Euskarri digitala, testu tratamendurako doc eta pdf formatuetan.

Dokumentazio grafikoa:

- Paperezko euskarria: Kopia arrunt modulatuak, koloreztatuta eta tolestuta, DIN-A4 tamainak, kaxan azaleztatuta eta zenbakituta.
- Euskarri digitala: dwg eta pdf formatuak.
- Errotuluan hau jaso beharko da: Gorlizko Udaleko kutxa ofiziala, lanaren izena, izapidetze-fasea, data, eskala, idazketa-talde teknikoak, taldeko arduradunaren sinadura eta Udalaren oniritzia.

Azaleztatzeak berriz aztertu ahal izango dira dokumentua egin bitartean, baina Udalaren baimena beharrezkoa izango da horretarako.

Agiria prestatzeko faseetan, lanaren xede den dokumentu bakoitzaren 4 ale aurkeztu beharko dira. Behin-behinean onetsi ondoren, dokumentazio osoaren 6 ale bidaliko dira, kutxa zenbakitu batean edo batzuetan gordeta; Udalak erabaki beharko du kutxa horren neurriak zein izango diren.

Estalkian, lanaren aurkibidea jasoko da, dokumentu bakoitzaren egoera azalduta eta plano guztien zerrenda adieraziz.

Behin betiko onespina eman ondoren, jatorrizko planoen ale bat emango da -hala dagokionean, zuzenduta-, kalitaterik oneneko paperean, bai eta CDak edo eskatutako dokumentazio informatikoak aurkezteko behar diren euskarri baliokideak ere.

0. ERANSKINA

POSTA ELEKTRONIKO BIDEZ JAKINARAZPENAK EGITEKO BAIMENA

..... jaunak/andreak,
..... helbidea duenak eta
NAN zenbakia duenak, bere izenean edo
(adierazi ordezkaritza-eskumenak: administratzaile bakarra, ahalduna...) gisa,
.....
egoitza soziala eta IFK
zenbakia duen enpresaren izenean

ARDURA OSOZ ADIERAZTEN DU:

Gorlizko Udalarai baimena ematen diola eskakizun, berri-emate eta jakinarazpen mota guztiak posta elektronikoko bidez bidaltzeko behean ageri den helbidera, Legeak ezarritako ondore juridikoekin, Gorlizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Nagusia Berrikusteko udaleko idazketa- eta aholkularitza-zerbitzuen kontratua adjudikatzeko prozesuan, partaide denean:

Helbide elektronikoa:@
.....

Oharrak:

Enpresen aldi baterako elkarteen kasuan, 0. eranskin bakarra beteko da, bi enpresen eta haien ordezkarien datuekin, eta bi pertsonen sinatuta.

Eta dagozkion ondorioetarako idatzita jasota gera dadin, adierazpen arduratsu hau sinatzen dut,
.....-(e)n, -ko-ren
.....-(e)an.

Sinadura:
Enpresaren zigilua:

I. ERANSKINA

KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

IZENBURUA:

1.- Kontratuaren xedearen definizioa.

CPV kodea: 71200000-0

Kontratuaren kategoria (*Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen* II. Eranskina): 12.

2.- Kontratazio-organoa:

Posta-helbidea: Tokiko gobernu-batzordea, Udaletxea, GORLIZ, 48630 Bizkaia.

3.- Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua eta hura asetzeko kreditua.

Aurrekontua: **280.000 euro**, BEZa barne.

Aurreko zenbatekotik Balio Erantsiaren Gainerako Zergari (%21) **48.595,04 euro** dagozkio. Horrenbestez, kontratuaren balio zenbatetsia BEZa kenduta **231.404,96 eurokoa** da.

3.1. Urteko kuotak:

2013 :	80.000
2014:	100.000
2015:	100.000

4.- Araudi harmonizatuari atxikitako kontratua: BAI.

5.- Gutxieneko kaudimen-betekizunak. Adierazitako baliabideekin lotuta, Agindu Teknikoen Pleguaren 4. puntuan zehaztutako gutxieneko kaudimen-betekizunak bete beharko dituzte enpresek kontratu zehatz honetarako, eta hauek dira zehazki:

Enpresa edo profesional fidagarriek ziurtatuko dute azken **10** urteetan 3.000 biztanle baino gehiagoko udalerri batean behin-behinean onartutako plan nagusi baten edo arau subsidiarioen berrikusketa edo lehen formulazio batean gutxienez parte hartu izana.

Taldea koordinatuta dagoela frogatzeko, taldeko zuzendariak idatzi beharko du berrikusketa hori. Taldeko zuzendaria ordezkatu ahal izateko ezinbestekoa izango da Kontratazio-organoak berriazko baimena ematea. Zehaztapen hori betetzen ez bada, kontratua ezeztatzeko aukera emango da.

Idazketa-taldeko gutxienez bi kidek (bata, teknikaria, eta bestea, kide juridikoa) frogatu beharko

dute hirigintzari buruzko jakintzak eta plana egiteko prozesu osoan, herritarren partaidetza-forumetan, Plangintzako Aholku Kontseiluan, herritarrei informazioa emateko bilkuretan eta Udalak xede horretarako deituko dituen batzorde teknikoetan euskaraz adierazteko gaitasuna dituztela.

Eskakizun hori funtsezko betebeharrak bat da, eta betetzen ez bada, ezinezkoa izango da adjudikazioduna izatea.

Eskakizun hori betetzen dela frogatzeko euskarako titulua (EGA, HABE-3 edo antzekoa) eman daiteke edo adierazpen arduratsu bat egin daiteke.

Bigarren kasu horretan, eskaintza onuragarriena hautatu ondoren, eta kontratua esleitu baino lehen, kontratazio-organoak ebaluazio tekniko bat egingo du aditu batek lagunduta. Aditu horrek egiaztatuko du idazketa-taldeak behar adina hizkuntza-maila duen euskal hiztunekin komunikatzeko.

Eskakizun hori betetzen dela frogatzen ez bada, proposamena baztertu egingo da, fidagarritasun-baldintzarik ez izateagatik. Beraz, hurrengo lizitatzaitzaileen akreditazio teknikoa kontrolatuko da, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera.

6.- Kontratua egiteko beharrezko enpresa-gaitasuna edo gaitasun profesionala:

Beharrezkoa da: Bai. Agindu Teknikoen Pleguaren laugarren atalean adierazitakoaren arabera, gutxienez hirigintzan espezializatutako arkitekto bat, abokatu bat eta biologo bat edo ingurumen-enpresa bat.

7.- Adjudikazio-prozedura:

Izapidetzea: arrunta
Prozedura: irekia
Askotariko adjudikazio-irizpideak

8. Proposamenen balioztatzea.

8.1.- Adjudikazio-irizpide objektiboak.

1. Prezioa: 10 puntu

Lege triangeluar lineal baten arabera balioztatuko da ekonomia-eskaintza. Lege horrek ekonomia-eskaintza baxuenari ematen dio gehieneko puntuazioa (10 puntu), baldin eta ausarkerian erori ez bada; eta lizitazioaren aurrekontuari gutxieneko puntuazioa (0 puntu). Aipatu muturreko balioen artean dauden aurrekontu-eskaintzak dagozkien muturreko balioztapenen interpolazio linealaren bidez balioztatuko dira. Hauek dira balioak:

L.A. Lizitazio-aurrekontua
E.E.B. Ekonomia-eskaintzarik baxuena

E.E.E. Enpresaren ekonomia-eskaintza
G.Bal. Gehieneko balioztapena (10).
Vx Eskaintzaren balioztapena

$$Vx = G.Bal. \times [(L.A. - EEE)/(LA - EEB)]$$

Ezohiko balioak edo neurritz gainera balioak sartzearen ondorioz proposamena ezin dela bete hautemateko, aintzat hartuko dira lehen ezarritako irizpide objektiboetatik 1. zenbakian (prezioa) adierazita daudenak, eta egoera horretan hautemateko muga hauek ematen dira:

1. Lizitatzailerak bakarrenean, prezioa txikiagoa denean lizitaziorako oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate baino gehiagotan.
2. Bi lizitatzailerak daudenean, portzentajezko 20 unitate baino gehiagotan txikiagoa dena beste eskaintza baino.
3. Hiru lizitatzailerak daudenean, portzentajezko 10 unitatetan baino gehiagotan txikiagoak direnak aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino. Hala ere, zenbateko handieneko eskaintza batez besteko hori neurtzeko kanpoan utziko da, batez besteko hori baino handiagoa bada portzentajezko 10 unitate baino gehiagotan. Edonola ere, portzentajezko 25 unitate baino gehiagoko beherakada neurritz kanpokotzat joko da.
4. Lau lizitatzailerak edo gehiago daudenean, portzentajezko 10 unitatetan baino gehiagotan txikiagoak direnak aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino. Hala ere, eskaintza horietako batzuk batez besteko hori baino handiagoak badira portzentajezko 10 unitatetan baino gehiagotan, bataz besteko berri bat kalkulatu da ustezko kasu horretan ez dauden eskaintzekin soilik. Edonola ere, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, batez besteko berria zenbateko txikieneko hiru eskaintzak erabiliz kalkulatu da.

82.- Formularen bidez kuantifikatu gabeko irizpideak:

2	Erabilitako metodologia	40 puntura arte
	Plegu honen 5. atalaren garapena.	
3	Parte hartzeko mekanismoak	20 puntura arte
	Arau subsidiarioak berrikusteko prozesuan ahalik eta herritar gehienek parte har dezaten, lizitatzailerak hainbat osagarri eskaini ditzake, hala nola hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, liburuxkak, herritarrei arreta emateko sistemak, etab.	
4	Hobekuntzak	30 puntura arte
	Idazketa-taldeak proposatzen dituenak eta korporazioaren ustez interesgarriak izan daitezkeenak.	

100 PUNTU GUZTIRA

Kontuan izanda automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei esleitutako haztapena askoz ere txikiagoa dela automatikoki ebalua ez daitezkeenei esleitzen zaiena baino, une egokian eta alkatetzaren Dekretu baten bidez, **adituen batzorde bat hautatuko da**, Sektore

Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 150.2. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez.

Lizitazioak aurkeztu ondoren izendatuko dira ADITUEN BATZORDE horretako kideak, bateraezintasunik izan ez dadin. Hasiera batean, erakunde hauek aukeratutako 3 ordezkari osatuko dute.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) ordezkari bat.

Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza/Lurralde Antolamendurako Saileko ordezkari bat

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko ordezkari bat, hirigilea.

Batzordearen bileretara talde bakoitzak izendatutako teknikari bat joan ahal izango da begirale gisa.

Batzordeak udal korporazioa osatzen duten talde politikoei egindako hausnarketen berri emango die.

9.- Kontratuaren adjudikaziorako balio-judizio baten irizpean jarritako irizpideekin lotuta aurkeztu beharreko dokumentazio teknikoa (2., 3. eta 4. irizpideak):

ERABILITAKO METODOLOGIA (2. gutun-azala)

Talde lizitatzailleak lanak garatzeko zer metodologia erabiliko duen azalduko du, plangintzaren eta proposatutako hirigintza-jarduketan politikaren bidez lortu nahi diren helburuen arabera.

Horretarako, lanak egiteko plan bat egingo du, hauek jasoko dituen:

- Memoria bat, eta bertan, lanetan erabiliko den metodologiaren azalpena, lizitatzailleak bere gain hartzen duen lan bakoitza argi eta garbi zehaztuta.
- Lanak egiteko egutegi osoa, plegu honetan ezarritako epe partzialekin bateragarria izango dena.
- Parte hartu behar duen langile-taldearen deskribapena.
-

Berariazko konpromisoa adierazi beharko da lana egiteko, eta adierazpen bat jasoko da, bateraezintasunen araubidea onartzeko. Era horretan, hitz emango dute ez dutela esku hartuko lan partikularretan, ez eta Gorlizko Udala ez diren erakundeek sorrarazitako lanetan ere, betiere eragina badute edo zerikusia izan ahal badute kontratazio honen xede den plangintzako dokumentuak hirigintzako aprobetxamendu berriak onestearekin, pleguaren xede den plangintza idaztean, eta arlo berean, plegua behin betiko onesten denetik bi urte igaro arte, lana esleitzen baldin bazaie.

PARTE HARTZEKO MEKANISMOA (2. gutun-azala)

Gorlizko Udalak herritarren parte-hartzeari garrantzia handia ematen dionez,

lehiakideak hainbat osagarri eskaini ahal izango ditu hedapen- eta komunikazio-alderdiak hobetzeko, hala nola hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, liburuxkak eta herritarrei arreta emateko sistemak, herritarren parte-hartzea gutxieneko legezko alderdiekiko hobetuko dituztenak.

HOBEKUNTZAK (2. gutun-azala)

- Generoa kontuan hartzen duen hirigintzaren ikuspuntua kontuan hartuta, zehaztapenak proposatzen dituztenak.
- Mugikortasuna eta osasuna hobetzeko alderdiak jasotzen dituztenak.
- Eraikuntza- eta hirigintza-ordenantzetan energia-eraginkortasuneko eta jasangarritasuneko alderdiak aintzat hartzen dituztenak.
- Plana gehiago zehazten dutenak, bere garapena ondoko planei eskuordetzen ez dietenak.
- Hondartzaren inguruan egiteko esku-hartzeen proposamenak aintzat hartzen dituztenak.
- Etxebizitza hutsa/bigarren etxebizitzari buruzko problematikari buruzko azterketa zehatzaren inguruko proposamenak.
- Idazketa-taldea udaleko bulegoetara bertaratzea, informazioa eskuratzeko eta alderatzeko, eta informazioa emateko.
- Natura-baliabideen aprobeitxamendu jasangarria bultzatu eta sustatzen dutenak.

10.- Behin-behineko bermea.

Beharrezkoa da: EZ

11.- Hobekuntzen onargarritasuna.

Beharrezkoa da: BAI.

12.- Baliabide elektronikoak.

Lizitazio elektronikoa. EZ da onartuko eskaintzak baliabide elektronikoen bidez aurkeztea.

Lizitatzailerak bakoitzak helbide elektroniko bat eman beharko du, Udalarekin jakinarazpenak errazteko kontratazio-prozesu honetarako, O. ERANSKINAREN arabera.

13.- Behin betiko bermea.

Beharrezkoa da: BAI. Zenbatekoa: Kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoaren %5. Ez da bermea onartuko prezioan atxikipena eginez eratzea.

14.- Berme osagarria (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 83.2. artikularen arabera).

Beharrezkoa da: EZ

15.- Aseguru-poliza.

Beharrezkoa da: Erantzukizun zibileko poliza eta polizaren ordainketaren egoera.

16.- Lan-programa.

Lan-programa bat aurkeztea derrigorrezkoa da: BAI

17.- Exekuzio-epea.

Guztira: 25, hogeita bost hilabete. Harrera partzialak: Bai. Harrera partzialek EZ diote kontratistari eskubiderik emango behin betiko bermearen zati proportzionala ezeztatzeko eskatzeko.

Kontratuaren gehieneko iraupena, luzapenak kontuan hartuta, idazketa-taldeari dagozkion faseak kalkulaturik: 30 hilabete

18.-Zehapenak.

-Atzerapenengatik: 0,20 euro prezioaren 1.000 euro bakoitzeko, egunean.

-Kontratuan zehaztutako prestazioen exekuzio partziala ez betetzeagatik: Kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoaren %20a, kontratua betetzen ez den aldi partzialarekiko proportzioan.

-Kontratuaren exekuzio akastunagatik: kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoaren %5.

-Azpikontratazioarako ezarritako baldintzak urratzeagatik: Azpikontratuaren zenbatekoaren %20.

19.- Kontratuaren aurreikusitako aldaketak. EZ.

20.- Azpikontratazioa.

Beharrezkoa da: BAI. Kontratistak gehienez zer ehuneko azpikontratatzea baimenduta dagoen: Kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoaren %40ra arte. Eskaintzan zer zati azpikontratatu nahi den adierazi behar den: BAI.

21.- Ordainketen erregimena.

Ordaintzeko modua:

Adjudikaziodunari prozedura honen bidez ordainduko zaio adjudikazioaren prezioa:

1º-	Aurretiko aurrerapena aurkeztean	%10
2º-	Aurrerapena aurkeztean	%15
3º-	Alegazioei emandako erantzunak aurkeztean	%5
4º-	Plan nagusiaren dokumentazioa aurkeztean	%40
5º-	Alegazioen txostena aurkeztean	%10
6º-	Behin-behineko testu bategina aurkeztean	%10
8º-	Behin betiko testu bategina aurkeztean	%10

Fakturak Udalaren erregistroan eman beharko dira.

Aurreko izapidetzeak egin ondoren, ordainketa-proposamena aurkeztuko zaio Presidentetzari, eta aldi berean, Kontu-hartzaileak emango dio ordainketa horren berri. Betekizun hori beteta, ordainketa agindu eta egingo da.

22.- Prezioen berrikusketa.

Beharrezkoa da: EZ.

23.- Subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa: Kasu honetan ez dago halakorik.

24.- Lizitazioaren publizitate gastuen gehieneko zenbatekoa: Udalaren kargura.

25.- Kontratistak errespetatu beharreko kontratuaren konfidentziasunari buruzko informazioa:

Kontratua egitean eta 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Hogeita Hamaikagarren Xedapen Osagarria betez arlo horretan aplikatu daitezkeen gainerako araudian xedatutakoaren arabera errespetatu behar duten izaera pertsonaleko datuei buruzko guztia (15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa).

26.- Administrazioa kontratua ondo egin dela egiaztatzeko modua:

Udalak izendatutako kontratuaren arduradunak zerbitzua ebaluatuko du, zerbitzuaren harrera partzialak egin baino lehen.

27.- Kontratuari harrera egiteko modua:

Administrazioak erabakiko du kontratistak egindako prestazioa bat datorren kontratua gauzatzeko eta betetzeko ezarri ziren aginduekin eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak egiteko eta harrera egitean hautemandako akatsak zuzentzeko eskatu ahal izango du. Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsegiteen ondorioz, kontratazio-organoak prestazio horri uko egin ahal izango dio, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da edo, hala dagokionean, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

28.- Bermearen epea:

Kontratuaren xede den prestazioa amaitzen denetik 30 eguneko gehieneko epea, prestazioari harrera egiteko egintza formala eta positiboa egingo da, eta zerbitzuko teknikari arduradunak egingo du.

2 hilabeteko epea ezartzen da, harrera formala egiten den egunetik kontatzen hasita, eta berme gisa ezartzen da, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako.

Bermearen epe horretan, kontratista izango da egindako lanetan edo prestazioan hauteman daitezkeen akatsen edo hutsegiteen erantzulea.

Epe hori igaro eta administrazioak ez badu eragozpenik jartzen, kontratistaren ardura iraungiko da.

II. ERANSKINA

EKONOMIA-PROPOSAMENAREN EREDUA

..... jaunak/andreak,
NAN zenbakia duenak, bere izenean edo IFK duen eta -(e)n,
..... klean zenbakian egoitza duen-
ren (ordezkatzen duen enpresaren izena) ordezkari lanak eginez, kontratu honen lizitazio-iragarkia
kontsultatuta:,(BAO, EAO, EBAO)-n
argitaratua⁵⁰-ko-ren-(e)an, eta klausula administratiboen pleguan eta
agindu tekniko zehatzen pleguan ezarritako baldintzak, eskakizunak eta betebeharrak ulertuta,
adierazten dut eduki horren berri dudala eta osorik onartzen dudala, eta enpleguaren babesari, lan-
baldintzei eta laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, agintzen dut kontratua beteko dudala,

baldintza hauetan:

Data eta lizitatzaillearen sinadura. DAGOKION KONTRATAZIO-ORGANOARENTZAT

⁵⁰ Adierazi zer argitaratze-data ofizialetan izan duzun lizitazioaren berri.
ZERBITZUAK: PROZEDURA IREKIA. ASKOTARIKO IRIZPIDEAK

III. ERANSKINA

ABALAREN EREDUA

..... (*kreditu erakundearen edo elkarrenganako bermedun sozietatearen sozietate izena*) erakundeak, IFK zenbakia duenak,-n, klean/enparantzan/hiribidean,PKn egoitza duenak (jakinarazpenak eta eskakizunak egiteko), eta bere izenean (*ahaldunen izena eta abizenak*), egintza honetan behartzeko ahal askietsia du, dokumentu honen beheko zatian aipatzen den ahalordeen askiesteak frogatzen duen bezala,

ABALA EMATEN DIO

..... (*abalatuaren izena eta abizenak edo sozietate izena*), IFK zenbakia duenari, (*letretan eta zifretan idatzitako*) eurokoa, (*berme hori eratu behar dela ezartzen duten arauak eta artikulak*) xedatutakoaren arabera, betebeharrak aurre egiteko (*zehaztu kontratuaren xedea eta bermatuak bere gain zer betebeharrak hartu duen, eta adierazi kontratuan aurreikusita egon daitezkeen luzapen posibleak*) (*administrazio-organoa, organismo autonomoa edo erakunde publikoa*) aurrean.

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunean adierazten du Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorraren 56.2. artikuluan aurreikusitako betekizunak betetzen dituela.

Abal hau solidarioki ematen da behartu nagusiari dagokionez, salbuespenaren onurari beren beregi uko eginda eta Gorlizko Udalak lehenengoz eskatutakoan ordaintzeko konpromisoa hartuta, Administrazio Publikoen kontratuei buruzko legean aurreikusitako baldintzei, lege horiek garatzeko arauetan ezarritakoari eta gordailu-kutxa orokorra arautzeko arautegian ezarritakoari lotuta.

Abala indarrean egongo da (*adierazi kontratazio-organoa*) edo haren izenean jarduteko legez gaitzen denak hura ezeztatzeko edo itzultzeko baimena eman arte, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko legean eta legedia osagarrian ezarritakoaren arabera.

Abal hau gaur bertan inskribatu da Abalen Erregistro Berezian zenbakiarekin.

.....(*Lekua eta data*)
.....(*Erakundearen sozietate-izena*)(*Ahaldunen sinadura*)

IV. ERANSKINA

**ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKU EDO
BATERAEZINTASUNAK EZ IZATEAREN, ZERGA BETEBEHARRAK ETA
GIZARTE SEGURANTZAKOAK BETETZEAREN ETA EGINTZA-EPEALDIAN
UDALAREKIN ZORRIK EZ IZATEAREN ADIERAZPEN ARDURATSUAREN
EREDUA.**

..... jaunak/andreak, NAN zenbakia
duenak, bere izenean edo IFK zenbakia duen
enpresaren ordezkari gisa, modura.....

ADIERAZTEN DU:

I.- Aipatu sozietatea, hartako administratzaile eta legezko ordezkariak eta sinatzailea ez daudela
Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategineko azaroaren 14ko 3/2011 Legearen 60.
artikuluari adierazten diren kontratatze debeku-eta bateraezintasun-egoeran.

II.-Aipatu erakundeak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela, indarreko
xedapenek agintzen duten moduan, eta ez duela gauzatze-epean inolako ordainketa-zorrik Udalarekin
eta, balitu, bermaturik daudela.

.....-(e)n,-ko-ren-(e)an

Sinadura:

Oharra: Enpresako edo sozietateko zuzendaritza-organoak edo ordezkaritza eskudunak sinatu behar
du adierazpen arduratsu hau, enpresak edo sozietateak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen
Testu Bateginaren azaroaren 14ko 3/2011 Legearen 73. artikuluan aurreikusitako beste baliabideren
bat aukeratzen duenean izan ezik.

V. ERANSKINA

LIZITATZAILEEN ERREGISTROAN SARTUTAKO DATUAK INDARREAN EGOTEAREN ADIERAZPEN ARDURATSUAREN EREDUA

..... jaunak/andreak, NAN zenbakia duenak, den aldetik, bere izenean edo IFK zenbakia duen enpresaren ordezkari gisa, zeina zenbakiarekin Lizitatzailen Erregistroan izena emanda dagoen, deitu duen izeneko kontratazioan parte hartzeko asmoz, bere erantzukizunpean

ADIERAZTEN DU:

A) Lizitatzailen Erregistro Ofizialean agertzen diren enpresa horretako datuak ez direla aldatu inolaz ere eta bat datozela Erregistroko ziurtagiriarekin.

B) Lizitatzailen Erregistro Ofizialean agertzen diren enpresa horretako zenbait datu, jarraian adierazten direnak, aldatu egin direla, atxikitzen diren dokumentuen bidez egiaztatzen denez. Gainerako datuak aldatu gabe mantendu dira Erregistroko ziurtagiriarekin bat etorriz.

Datu hauek aldatu dira:

Frogagiri gisa atxikitako dokumentazioa:

.....-(e)n, 20.....-ko-ren-(e)an

Sinadura:

1. Adierazpen hau derrigorrez aurkeztu behar da lizitazio bakoitzean. 2. Adierazi zer ordezkaritza duen enpresako deklaratzailak. 3. Adierazi zer administrazio dagokion. 4. Adierazi zer organok, unitatek edo erakundek izapidetuko duen kontratazio-espedientea. 5. A) eta B) aukerak ez dira bateragarriak, dagokizuna adierazi soilik.

Plegu hau Udalbatzak onartu zuen,
2013ko uztailaren 29ko bilkuran.